

**EKONOMIA  
ARDURATSU,  
ZUZEN ETA  
SOLIDARIO  
BATERANZKO  
URRATSAK**

# **ENPRESA ETA GIZA ESKUBIDEAK**

Koordinazioa eta edukiak \_ **Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomilariak**

Proposamen metodologikoa \_

**Sareak Ehuntzen Prestakuntza eta Ikerketa Sozialerako Taldea**

Juan Rodríguez Medela,

Nayra García-González

María del Pilar Tudela Vázquez

Itzulpena: **Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l.**

Diseinu eta maketazioa \_ [www.dosmasdos.info](http://www.dosmasdos.info)

Azalako argazkiak \_ **Slava Bowman**

Barrualdeko ikonoak \_ **freepik**

Honakoak egin ditzakezu \_



• **Partekatu** – partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan

• **Moldatu** – nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu

Honako baldintzen arabera \_



**Aitortu** – Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.



**EzKomertziala** – Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako



**PartekatuBerdin** – Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorri-zkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Lizentzia \_

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

\* Material hau 2018ko uztailean idazten bukatu zen

# AURKIBIDEA

---

## 0 ■ ERABILERA GIDA

- Gida testuinguruan jartzea
- Helburuak
- Edukien egitura
- Metodologia
- Ebaluazio-mekanismoak

## 1 ■ 01 GIDA DIDAKTIKOA ENPRESA ETA GIZA ESKUBIDEAK

- Unitatearen helburuak
- Kontzeptuzko edukiak
- Unitatearen garapena:
  - 1 saioa
  - 2 saioa
  - 3 saioa
- Bibliografia

## 2 ■ 02 GIDA DIDAKTIKOA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOAREN IKUSPEGIAN ERROTURIKO EKINTZAILTZA

- Unitatearen helburuak
- Kontzeptuzko edukiak
- Unitatearen garapena:
  - 1 saioa
  - 2 saioa
  - 3 saioa
- Bibliografia

## 3 ■ 03 GIDA DIDAKTIKOA KOMUNIKAZIOA GENEROAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN IKUSPEGITIK

- Unitatearen helburuak
- Kontzeptuzko edukiak
- Unitatearen garapena:
  - 1 saioa
  - 2 saioa
  - 3 saioa
- Bibliografia

## 4 ■ ERANSKINAK

## 5 ■ MATERIAL OSAGARRIAK

Sar zaitetz edukietara  
interesa zaizun atalean  
klik eginez





# UNITATEAREN HELBURUAK

Hauek dira UD honetan proposatzen den ikaskuntza-prozesuaren: helburuak

- Globalizazioaren testuinguruan, tokian tokikoaren eta mundu-mailakoaren arteko interrelazioak ulertzea.
- Enpresak, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta, gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktua eragiten duen ulertzea.
- Erantzukizun Sozial Korporatiboaren, Banku Etikoaren eta Kontsumo Arduratsuaren oinarritzko nozioak zein diren jakitea.
- Gizartearekin eta ingurumenarekin arduraz jokatzeari begira, enpresek zer egin beharko luketen aztertzea.
- Banku etikoak Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin loturik zer-nolako ezaugarriak dituen aztertzea.
- Herritar kontsumitzaileek eta elkarteek enpresetan eragina izateko zer aukera dituzten aztertzea, ingurumenaren errespetuan oinarrituriko ekonomia sozial baterako bidean aurrera egiteko.

# KONTZEPTUZKO EDUKIAK

■ **Enpresak, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta, gizartean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua.** Batetik, auzi sozialak daude tartean: lan-eskubideen urraketak (lanaldi luzeak, soldata eskasak, lan-baldintza osasungaitzak...); gaitasunen garapenik eza; monetarizatu gabeko lanaren inbisibilizazioa; gizon eta emakumeen soldaten arteko desparekotasuna; kontziliaziorako neurririk eza... Bestetik, ingurumenarekin loturiko auziak daude tartean: kutsaduraren ondorioak (poluzioa, isurpenak, hondakinak...); basamortutzea; habitat naturalen suntsiketa (eta, ondorioz, baita bertako flora eta faunarena ere); baliabideak agortzea... Hori guztia estu loturik dago garapena hazkunde ekonomiko mugagabearekin parekatzeko eta baliabideek batere mugarik ez dutla pentsatzeko joerarekin. Aitzitik, ordea: naturako baliabideak mugatuak dira eta, ondorioz, sistema ekonomiko kapitalistak sustatzen duen etengabeko hazkunde hori ez da jasangarria.

■ **Erantzukizun Sozial Korporatiboa (ESK).** Gizarte- eta lan-auziekin, ingurumenaren babesarekin eta giza eskubideen errespetuarekin loturiko kezkek erakunde baten kudeaketan eta jardueretan aintzat hartzeari eta txertatzeari esaten zaio, eta halakoei aurre egiteko eta erakundearekin harremana duten interes-taldeak ere bide horretan inplikatzeko moduko politikak, estrategiak eta prozedurak martxan jartzea du oinarri. Halakoetan, ekonomiaren, errentagarritasunaren eta diruaren ginetik daude gizarte-ardura eta ingurumenaren errespetua, eta hain zuzen ere, horrexegatik esaten da enpresa, erakunde eta pertsonok Giza Garapen Jasangarriaren alde egin behar genukeela: ardura sozialak ditugulako, alegia. Hala ere, bada hori guztia kritikatzeko duenik ere, ardura sozialak bi eratakoak izan daitezkeela argudiatuz: batetik, enpresek beren jarduna zurrizko erabili ohi dutena, eta zenbait kolektibo sozial baztertzea eta ingurumena hondatzea eragiten duena; eta, bestetik, komunitate jakin baten parte izatetik eratortzen dena, eta enpresari bere eguneroko martxan (lan-baldintzak hobetu, natura-ingurunea babestu...) eta gizartearekin dituen harremanetan (komunitatea bera helburu duten proiektu eta ekimenak diseinatu, irabaziak komunitatean inbertitu...) arduraz jokatu beharra dakarkiona

■ **Banku Etikoa (BE).** Banku tradizionalen antzera dirua irabaztea beste helbururik gabe jardun beharrean, Banku Etikoak, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioetan erroturik, errentagarritasun ekonomikoa eta giza eskubideen eta ingurumenaren errespetua bateratzen ditu. Gizartearentzat balio erantsia duten proiektuetan soilik inbertitzen du Banku Etikoak, gizartearekin, ingurumenarekin, hezkuntzarekin, kulturarekin eta antzeko balioekin loturiko ekimenetan, eta beren aurrezkiak non inbertitzen diren jakinarazten die bezeroei. Banku Etikoak sistema finantzario berritzaile eta urratzaile bat sortu beharra ekarri du, aurreztea eta inbertitzea helburu dituen, bai, baina irabaziek hiru eratakoak izan behar dutela ahaztu gabe betiere: sozialak, ekologikoak eta ekonomikoak..

■ **Kontsumo Arduratsua (KA).** Produktu eta zerbitzuak, haien kalitatean eta prezioan oinarriturik bakarrik ez, halakoek ingurumenean eta gizartean zer-nolako inpaktuan duten eta halakoak produzitzen dituzten enpresen jokabidea kontuan harturik aukeratzean datza. Kontsumitzen den produktua modu integralean aztertzea da giltzarria, produktu eta zerbitzuen ziklo osoa kontuan hartzea: zer lehengai erabili diren, produkzio-prozesua nolakoa izan den, lan-eskubideak errespetatu diren ala ez, enpresa-eredua, eredu komertziala, markak, publizitatea, garraioak, produktuak paketatze modua, erabilera, hondakinak... Gure kontsumoa arduratsua dela esaten dugunean, zera ari gara adierazten: kontsumitzaileok zer esan franko dugula kontsumoaren kate horretan, geuk erabakitzen dugula zer aukeratu ondasun eta zerbitzuen merkatuak eskura jartzen dizkigun produktu ugarien artean, gure esku dagoela justizia soziala, etika eta solidaritatea errespetatuz produzitutako produktuak erosi ala ez aukeratzea. Zer kontsumitu aukeratu ahal izateak ematen dio kontsumitzaileari enpresetan eta merkatuan eragiteko ahala; eta, alde horretatik, kontsumismoari uko egitea, gutxiago kontsumitzea eta gure kontsumo-ohiturez hausnartzea bere hartan dira kontsumo arduratsurako baliabide apartak.

# UNITATEAREN GARAPENA

Ondoren, hiru saioetan urratu beharreko bidea deskribatzen da:

## ■ 1 SAIOAK

***Enpresak, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta, gizartean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua*** darama izenburutzat, eta hain zuzen ere, horixe da ikasleek saio honetan aztertu eta landuko dutena: enpresek, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta, gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktua eragiten duten.

## ■ 2 SAIOAK

***Hartu beharreko neurriak. Enpresa, Entitate Finantzarioak eta Kontsumoa*** da 2. saioaren izenburua, eta hartan, ingurumenaren errespetuan oinarrituriko ekonomia sozial eta arduratsuago baterako bidean enpresek, entitate finantzarioek eta kontsumitzaileek zer egin ote dezaketen aztertu beharko dute ikasleek, taldetan jarrita.

## ■ 3 SAIOAK

***Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Banku Etikoa eta Kontsumo Arduratsua*** izenburuan aipatzen diren kontzeptuak dira 3. saioko giltzarriak, eta ikasleek taldean landutako proiektuak bateratu eta osatu beharko dituzte hiru kontzeptu horien inguruan hausnartutakoarekin.



# 1 SAIOA

## Enpresak, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta, gizartean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua

Saioa honela egituratzen da:

**1\_ Ongietorria. Unitatearen aurkezpena: *Enpresa eta giza eskubideak*.** Saioan urratuko den ibilbidea eta ikasleek landu beharko duten proiektua. **(10 min.)**

**2\_ Dinamika: *Enpresak, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta, gizartean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua*.** Helburua: sistema kapitalista neoliberalak gizartean eta ingurumenean eragiten dituen inpaktuen zenbait kasu eta adibide aztertzea. **(45 min.)**

**3\_ Amaiera.** Saioan landutakoen laburpena eta hurrengo saioan landuko diren edukien aurkezpena. **(5 min.)**

## SAIOAREN GARAPENA

45 min 

Hona hemen zenbait ideia, lanean hasi aurretik kontuan hartu beharrekoak, unitatearen helburuak argitzeko, eta ikasleen interesa eta eztabaida pizteko. **(3 min.)**



### ■ PARTEKATZEKO IDEIAK

- Gurean dena hartua duen sistema ekonomiko kapitalista ez da jasangarria, eta kalte nabarmenak eragiten ditu bai gizartean, bai ingurumenean.
- Ekonomiaren eta planetaren jasangarritasunari dagokionez, enpresa bakoitzak ekar dezake bere aletxoa, baina baita entitate finantzarioek ere, eta kontsumitzaileok ere bai. Denok dugu, modu zuzenagoan edo zeharkakoagoan, giza eskubideak babestu edo urratu izanaren ardura, horretan denok dugu parte aktiboa.
- Zuek ere baduzue, zeuen burua ongi prestatuz gero, ekintzaile, kontsumitzaile, inbertsore nahiz herritar modura mundu jasangarriago eta zuzenago baten alde zer edo zer egiteko aukera.
- Gurean nagusitu den eredu ekonomikoari eusteak dakartzan arriskuez jabetzea da unitate didaktiko honen xede xumea, eta bizi garen ekosistema sozial eta natural honetan, ekintzaile, inbertsore eta kontsumitzaile modura zer egin dezakegun aztertzea ere bai, giza eskubideak aintzat dituen ekonomia-eredu bidezkoago eta zuzenago baterako bidean aurrera nola egin aztertzeke asmoz betiere.

## Unitate honetan landu beharreko proiektuaren aurkezpen orokorra (2 min.)

Unitate honetan, hainbat modutan azaltzen da pertsona bakoitzak (ekintzaile, inbertsore eta kontsumitzaile modura jokatzeko dituen rolen bitartez) ekonomia zuzenago eta solidarioago bat lortzearen alde zer egin dezakeen. Horretarako, zenbait talde osatu, eta ikasleek entitate hauetako baten lekuan jarri beharko dute:

- Enpresa txiki edo ertain bat. Gure helburua ekintzaile izaten ikastea denez gero, jasangarritasun eta justizia sozialerako bidean kontuan hartu beharrekoak zer elementu diren jakin beharra daukagu.
- Kontsumitzaile-elkarte bat. Gaur egun, zuek ere halakoen bidez ekar diezaiokezue zuen aletxo jasangarritasunari, dela zuen kontsumo-ohituren bidez, dela enpresak aldaketak egitera bultzatzeko presio kolektiboaren bidez.
- Banku Etiko bat. Jasangarritasunaren alde dauden enpresak eta modu arduratsuan inbertitu nahi duten pertsonak elkartzen dituzte halakoek.

### » DINAMIKA

#### Enpresak, giza eskubideen ikuspuntutik begirata, gizartean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua



- **EDUKIA:** Sistema kapitalista neoliberalak gizartean eta ingurumenean eragiten dituen inpaktuen zenbait kasu eta adibide aztertzea.
- **MATERIALAK:** Arbela eta klarionak, paperografoa, paper jarraitua edo folioak, eta errotuladoreak, 1. eranskinaren kopia bat.
- **INPLEMENTAZIO-DENDORA:** 40 minutu.

Hasteko, galdetu ikasleei ea zer diren berentzat giza eskubideak. Ekarpenguzti-guztiak idatzi behar dira. (5 min.)



#### ■ EKARRI GOGORA

Ikasleek nekez parte hartzen dutela ikusten baduzue, eman zenbait arrasto, honelako galderak eginez: Hezkuntza eskubide bat al da? Eta osasuna? Eta etxebizitza?

Ikasleen parte-hartzeak apala izaten jarraitzen badu, Partekatzekeo ideiak atala aurkezteari ekin diezaiokezue.

Ikasleen ekarpenetatik abiatuta, azaldu zer diren Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna, biak ere garrantzi handikoak baitira ekonomia kapitalistan enpresek gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktua duten ulertzeko. (5 min.)



## ■ PARTEKATZEKO IDEIAK

Gizon-emakume guztioi, norberaren nazionalitatea, bizilekua, sexua, sorterrria, etnia, larruazal-kolorea, erlijioa edo hizkuntza gorabehera, berez dagozkigun eskubideak dira **giza eskubideak**. Denok gara berdinak eskubidez, salbuespenik gabe. Giza eskubide guztiak elkarri estu lotuta daude, eta interdependentek eta banaezinak dira.

Gizaki guztiontzat berdinak eta besterenezinak diren eskubide horietan oinarritzen dira gure askatasuna, justizia eta bakea, eta halaxe aitortzen du Giza Eskubideen Alarrikapen Unibertsalak, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak 1948an onartua.

**Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Ituna** 1966an sinatu zen, eta hartan, eskubide zibil eta politikoez bestelako eskubideak jasotzen dira, hau da, izaera sozioekonomikoa duten eskubideak. Itun horrek, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalak eta Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Itunak osatzen dute Giza Eskubideen Nazioarteko Gutuna.

Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunean, besteak beste, honako eskubide hauek jasotzen dira:

- Lanerako eta lanbidea aukeratzeko eskubidea (6. art.)
- Lan-baldintza zuzen eta egokiak izateko eskubidea (7. art.)
- Sindikatu-askatasuna eta grebarako eskubidea (8. art.)
- Gizarte-segurantzarako eskubidea (9. art.)
- Familiaren eta adingabeen babesa (10. art.)
- Bizi-maila duin baterako eskubidea eta norberaren kondizioak hobetzekoa (11. art.)
- Osasunerako eskubidea (12. art.)
- Hezkuntzarako eskubidea (13. eta 14. art.)
- Bizitza kulturean parte hartzeko eskubidea. Zientziaren eta kulturaren babesa, garapena eta hedapena (15. art.)

Hauek dira enpresek babes/urra ditzaketan giza eskubideetako batzuk:

- **Migrazioa:** tratu iraingarria, lan-esplotazioa, kulturagatiko bazterkeria.
- **Segregazioa:** arrazagatikoa, gizarte-jatorriagatikoa, kulturagatikoa, ezaugarri fisikoengatikoa, sexu-orientazioagatikoa.
- **Generoa:** andrazkoen eskubideak, kargua, soldata, kontziliazioa, hizkuntza sexista, indarkeria matxista.
- **Gutxiengoak:** kulturaren, hizkuntzaren eta bizi-estiloaren zapalkuntza.
- **Haurrak:** haurren lan-esplotazioa, eskolatzerik eza.
- **Erljioa:** erlijio-askatasuna, fanatismo erlijioso.
- **Ohiturak:** hizkuntzak, ohiturak, janzkera, elikadura-ohiturak, bizi-estiloak, aisialdia.
- **Lana:** sindikatu-askatasuna, osasun-kondizioak, lan-arloko segurtasuna.



**Ingurumena** ere eskubide bat da, baina Ekonomia Solidarioak koska bat estutzen du, eta Natura bera hartzen du eskubideduntzat. Zenbait herrialdek ere, hala nola Boliviak eta Ekuadorrek, aitortuak dituzte jada naturaren eskubideak.

Enpresek era askotara urratzen dituzte naturaren eskubideak; honatx:

- **Lehengaiak:** natura-baliabideen espoliazioa (lehorrekoena zein itsasokoena), espekulazioa, prezioak, interes ekonomikoetan oinarrituriko gerrak.
- **Energía:** especulación, ahorro energético.
- **Ura:** espekulazioa, energia-aurrezpena.
- **Hondakinak:** industrialak nahiz nuklearrak, hondakinak herrialde txirotuetara eramatea, lurzoruaren kutsadura.
- **Nekazaritza:** pestizidak, transgenikoak, elikadura-burujabetza.
- **Bioaniztasuna:** galtzeko arriskuan dagoen fauna eta flora.
- **Hondamendi ekologikoak:** petrolioaren, hondakin mineralen eta beste substantzia toxiko batzuen isurketa.
- **Klima-aldaketa:** 90 enpresak CO<sup>2</sup> isurketen 2/3ak eragiten dituzte.

**Justizia Fiskala** betebehartzat jotzen da: enpresek, norbanakoek bezala, dogozkien zergak ordaindu behar dituzte. Zergak ez ordaintzearen eraginez, administrazio publikoak ez dauka zenbait zerbitzu publikoren kalitatea bermatzerik, eta horrek giza eskubide ugari urratzea ekarri ohi du: osasunerakoa eta hezkuntzarakoa, besteak beste.

**Irabaziak metatzea beste helbururik ez duten enpresen jarduerak gure bizitzan zer-nolako inpaktua duten aztertzeko, jarri ikasleak bost taldetan. Esplikatu talde bakoitzari zer egin behar duen, eta eman albiste bat modu aleatorioan (material guztiak 1. eranskinean dituzue).**



**Hauek dira talde bakoitzaren zereginak: (15 min.)**

Gizartean eta ingurumenean inpaktua dutenetatik giza eskubideak urratzen dituztela iruditzen zaizkien faktoreak ahots gora irakurriko dituzte taldekide batek, eta besteek hark esana idatziko dute.



Gero, denon artean bateratuko duzue talde bakoitzak idatzitakoa, eta pertsonen ala ingurumenari eragiten dieten, inpaktuak horren arabera sailkatuko dituzue.



Produkzio-zikloa aztertu, eta inpaktuak fasez fase kokatuko dituzue. Inpaktu bakoitza zer faseri dagokion jakiteko, eskatu ikasleei galdera hauei erantzuteko:

**Erauzketa:** Zer inpaktu eragiten ditu produktuak egiteko erabiltzen diren lehengaiak lortzeko moduak?

**Produkzioa:** Zer inpaktu eragin ditzake kontsumorako objektuen fabrikazio-prozesuak?

**Banaketa:** Produktua fabrikatik dendetara eramateak zer ondorio ekartzen dizkie pertsonei eta ingurumenari?

**Kontsumoa:** Nola kontsumitu ohi dugu? Zein ote da horren zergatia? Zein dira gure kontsumo-ohituren ondorioak?

**Hondakinak jalkitzea:** Zer gertatzen da gure hondakinekin? Nola eragiten diete gure hondakinek gizarte- eta natura-inguruneari?

**Irabaziak berriz inbertitzea:** Zertan inbertitzen dituzte enpresek beren irabaziak?



Horren ondoren, talde bakoitzak bere aurkezpenaren formatua prestatuko du (marrazkiak eta gako-hitzak, albistegiak, irratsaioak, iragarkiak...)



Azkenik, talde bakoitzak bere bozeramaileak aukeratuko du, ikaskideei egindakoaren berri emateko.

Jarduera egiteko kalkulatu zenuten denbora-tartea igaro ondoren, atzera ere ikastalde osoa elkartu, eta produkzio-zikloa fasez fase aztertuko duzue, baina denon artean oraingoan. Horretarako, galdetu talde bakoitzari ea zer inpaktu dagozkion fase bakoitzari, eta horren arabera, zikloaren antolaketa kronologikoari jarraituz, erabaki aurkezpenen ordena. Bozeramaile bakoitzak 2 minutu izango ditu bere taldeak aztertu duen albistean identifikaturiko inpaktuen berri emateko, eta haiek aipatu ahala, arbelean idatziko dituzue den-denak. Taula bat ere marraztu dezakezue, ereduak oinarri hartuta. (10 min.)

Produkzio-zikloa, fasez fase	Inpaktuak gizartean	Inpaktuak ingurumenean
Erauzketa		
Produkzioa		
Banaketa		
Kontsumoa		
Hondakinak jalkitzea		
Irabaziak berriz inbertitzea		

Talde guztiek beren lana aurkeztu ondoren, egin aurkezpenetan aipaturiko inpaktuen laburpena, eta osatu informazioa nahi beste ñabardurarekin . (10 min)



### ■ PARTEKATZEKO IDEIAK

Hona hemen albisteetan aipatzen diren inpaktuetako batzuk eta haien osagarri diren beste batzuk, produkzio-zikloko zer faseri dagozkion aintzat hartuta ordenaturik. Hala, ikasleek berek identifikaturikoez gain, giza eskubideetan inpaktua duten beste faktore batzuen inguruan ere eztabaidatu ahal izango duzue, eta ikasleei haiei buruz ikerketa-lantxo bat egiteko eskatu ahal izango diezue:

### ERAUZKETA

- **Haurren lan-esplotazioa** (laneskua Kongoko koltan-mehatzeetan, laneskua kotoi-industrian).
- **Lan-esplotazioa** (soldata eskasak, lanaldi luzeak, langileen suizidioak).
- **Osasuna hondatzea** (erauzketarako produktu kimikoak, segurtasun-neurririk eza, haurrak bereziki zaugarri).
- **Baliabideak agortzea** (batez ere ura, hidrokarburoak eta mineralak).
- **Basamortutzea** (adibidez: nekazaritzako elikagaien industriak Amazonian laborantzarako dituen soja-zelaiak direla tarteko, oihana erabat soilduta dago).
- **Kutsadura** (produktu kimikoen bidezko erauzketak, isurketak...).

### PRODUKZIOA

- **Haurren lan-esplotazioa** (ehungintza).
- **Kulturagatiko bazterkeria** (adibidez: "Indiako kastarik apaleneko Dalit edo ukiezinak lanik ezdeusenetan aritzen dira (garbitzaile, eskulangile, eskale...), eta soldata hutsalak jasotzen dituzte ordainetan").
- **Generoagatiko bazterkeria** (soldata-arrakala, kristalezko sabaia, lanaren banaketa sexuala).
- **Lan-esplotazioa** (soldata eskasak, lanaldi luzeak, lekuz aldatzeko askatasunik eza, sindikatuetan parte hartzeko debekua, erasoak...).
- **Osasuna hondatzea** (kondizio osasungaitzak lantegietan, produktu kimikoak babesik gabe (maskara, eskularruak...) erabiltzea).

### BANAKETA

- **Kutsadura** (banaketa-kate globaletan garraio bideek eragindakoa).
- **Ingurumena hondatzea** (garraiorako azpiegituren eraikuntzak eragindakoa).

## KONTSUMOA

### ■ Produktuen jatorriari buruzko gardentasunik eza.

■ **Generoagatiko desberdintasunak** (emakumea objektu gisa erabiltzea, publizitatearen alorreko genero-rolak betiketzea).

■ **Zaharkitze programatua** (produktuen bizitza baliagarria aurrez programatzea) eta **produktuak itxuraldatzea** (berdinak diren objektuei itxura berria ematea, kontsumitzaileek, etengabe modan egon nahirik, haiek erosteko premia izan dezaten).

■ **Osasun-arazoak** (neofilia -azken berritasunak eskuratzeko obsesioa-; sakelakoaren mendekotasuna; kontsumitu behar aseezina).

■ **Kutsadura / baliabideak agortzea** (hiperkontsumismoa, *fast fooda*, *fast fashiona*).

## HONDAKINAK JALKITZEA

### ■ Hondakinak neurritz kanpo produzitzea.

■ **Kutsadura** (itsas zaborteak; biodegradagarriak ez diren hondakinen metaketa; klima-aldaketa).

■ **Osasun-arazoak** (hondakinen metaketak eta kutsadurak eragindakoak).

## IRABAZIAK BERRIZ INBERTITZEA

■ **Irabazien banaketa gorabeheratsua** (produkzioaren deslokalizazioak kalte egiten dio zenbait jenderi; multinazional eta inbertsoreek irabaziak pilatu).

■ **Ihes fiskala**: nazioarteko enpresa askok praktikatzen dute ihes fiskala, beren irabaziak paradisu fiskaletara eramanez, hala zergarik ez ordaintzeko, nahiz eta horrek zerbitzu publikoei eutsi ahal izatea galarazten duen.

---

## 2 SAIOA

### Hartu beharreko neurriak. Enpresa, Entitate Finantzarioak eta Kontsumoa

Saioa honela egituratzen da:

**1\_ Ongietorria**, Saioan egin beharreko lanaren aurkezpena. **(5 min.)**

**2\_ Dinamika: *Ekonomia zuzenago, solidarioago eta ekologikoago baterako neurriak***. Taldetan jarrita, ikasleek unitateko hiru kontzeptu nagusiak aztertu behar dituzte: Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Banku Etikoa eta Kontsumo Arduratsua. Horretan, enpresa bateko, entitate finantzario bateko eta/edo kontsumitzaile-elkarte bateko kide balira bezala jokatu behar dute, eta produkzioaren, finantzaketaren eta kontsumoaren artean zer-nolako loturak dauden aztertu/antzeztu. **(50 min.)**

**3\_ Amaiera**: Saioan landutakoen laburpena eta hurrengo saioan landuko diren edukien aurkezpena. **(5 min.)**

### SAIOAREN GARAPENA

50 min 

#### » DINAMIKA

#### Ekonomia zuzenago, solidarioago eta ekologikoago baterako neurriak



■ **EDUKIA**: Enpresak giza eskubideei dagokienez eragiten dituen inpaktuei aurre egiteko pertsonak, enpresek eta entitate finantzarioek, bai norbanako gisa eta bai kolektibo gisa, zer egin dezaketen aztertzea, ekonomia bidezkoago, solidarioago eta zuzenago baterako bidean urratsak egiteko.

■ **MATERIALAK**: Paperografoa eta errotuladoreak; arbela eta klarionak edo errotuladoreak; 2. eranskinaren kopia bana.

■ **INPLEMENTAZIO-DENBORA**: 50 min.



Hasteko, esplikatu dinamikaren eta egin beharreko proiektuaren nondik norakoak: lehenengo saioan, enpresek pertsonengan eta ingurumenean zer-nolako inpaktuak eragiten dituen ikusiko dugu. Ongi asko dakigu zer-nolako munduan bizi garen: gauzen martxari erreparatuz gero, ezin da etorkizun onik espero, baina gauzak aldatzea gure esku dago. Horretan, sistema ekonomiko zuzenago baterako bidean aurrera egiteko, guk ere ekar dezakegu gure aletxoa kontsumitzaile, inbertsore eta ekintzaile garen aldetik. Horregatik, produktioaren, finantzaketaren eta kontsumoaren arteko erlazio-sistema arduratsua nola izan litekeen aztertuko dugu lehen saio honetan. (5 min.)

Banatu ikasgela hiru taldetan. Pertsona bakoitzak, ekintzaile, inbertsore eta/edo kontsumitzaile den aldetik, ekonomia zuzenago eta solidarioago baten alde zer egin dezakeen aztertzeko, taldeek rol hauetako bat antzestu behar dute, eta bakoitzarekin loturiko erreferentziazko kontzeptua landu (kontzeptuak modu aleatorioan eman daitezke, edo nahiago baduzue, ikasleei bat aukeratzeko eska dakieke) : (5 min.)

**1\_ Enpresa txiki edo ertain bateko gerente-talde bat**, beren gizarte- eta ingurumen-ardurez jabeturik dagoena (Kontzeptua: Erantzukizun Sozial Korporatiboa).

**2\_ Kontsumitzaile-elkarte bat**, bai pertsona bakoitzak, norbanako gisa, eta bai herritar guztiek, kolektibo gisa, zer egin dezaket aztertzen duena (Kontzeptua: Kontsumo Arduratsua).

**3\_ Entitate finantzario bateko gerente-talde bat**, inbertsioak modu arduratsu eta etikoan egin beharraz jabeturik dagoena (Kontzeptua: Banku Etikoa).



#### ■ EKARRI GOGORA

Ikasleei zer rol jokatu nahi duten aukeratzeko ahala ematea baldin bada hautatzen den bidea, oso litekeena da talde batzuetan kide gehiegi eta beste batzuetan gutxiegi egotea. Hori gertatzen bada, galdetu kide gehien dituzten taldeetako ikasleei ea baten batek taldez aldatu nahi duen. Taldeetako bat kiderik gabe geratuko balitz, zeuek joka dezakezue rol hori, jarduera nolabait osatzea komeni baita.

Lana errazteko, eman talde bakoitzari jarraibide orokorren orriak eta beren erreferentziazko kontzeptuari buruzko informazio eta materialak. Horiek guztiak 2. eranskinean dituzue, eta hara jo dezakezue.



### Talde bakoitzak Enpresa Plan bat, Inbertsio Plan bat edo Kontsumo Arduratsuko Plan bat egin beharko du: (25 min.):

Talde bakoitzak, bere erreferentziako kontzeptua ikertu eta ulertu, eta bere enpresak ingurumenaren babesean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituriko ekonomia arduratsuago baten alde zer egin dezakeen hausnartu beharko du.



Ikasle bakoitzari gogoeta egiteko 5 minutuko tarte emango zaio, eta gero, egindakoa bateratze aldera, talde bakoitzaren ekimenaren gizarte- eta ingurumen-ardurak zerrendatuko dira denen artean.



Talde bakoitzak bere entitatearen plan espezifkoa egingo du:

- Erreferentziako kontzeptuaren definizioa (Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Banku Etikoa edo Kontsumo Arduratsua).
- Enpresaren, entitate finantzarioaren edo kontsumitzaile-elkartearen definizioa (izena, zer produktu/zerbitzu eskaintzen dituen...).
- Ekonomia zuzenago baterako bidean, zer egin dezake enpresak / entitate finantzarioak / kontsumitzaile-elkarteak?



Talde bakoitzak entitatearen aurkezpen publikoa prestatu beharko du (aurkezpena hurrengo saioan egingo da), betiere kontuan harturik aurkezpenaren helburua zera dela: entitateak erantzukizun-irizpide guztiak betetzen dituela argi azaltzea.

Aukeratu bozeramaile bana, ikaskideei egindakoa berri emateko.

**Lanerako denbora igaro ondoren, hitz egin denok talde bakoitzak saioan egindako aurrerapenei buruz. Hots: kontua ez da egindako plana aurkeztea (hori hurrengo saioan egingo baituzue), baizik eta elkarri egindako lanaren berri ematea eta bidean agertu diren zailtasunei buruz hitz egitea. (15 min.)**



#### ■ EKARRI GOGORA

Gogorazi ikasleei eskolaz kanpoko ordutegian bukatu behar dutela beren proiektua, eta, beraz, talde bakoitzeko kideek nola antolatu erabaki behar dutela. Ustez, ikasgelan lanean emandako tarte eta **eskolaz kanpoko beste bi ordu** aski izango dira proiektua bukatzeko.

## 3 SAIOA

### Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Banku Etikoa eta Kontsumo Arduratsua

Saioa honela egituratzen da:

**1\_ Ongietorria**, Saioan egin beharreko lanaren aurkezpena. **(5 min.)**

**2\_ Dinámica, Gizartearen eta ingurumenaren errespetuan oinarrituriko ekonomia bidezkoago baterako proposamenak**. Helburua: erreferentziazko kontzeptuak azaltzea eta talde bakoitzak prestaturiko plan-proposamenen berri ematea. **(45 min.)**

**3\_ Amaiera**. Saioan landutakoen laburpena egingo da eta ikasleei ebaluazio-galdergi bana emango zaie. **Unitate didaktikoaren ebaluazio parte-hartzailea** egiteko aukera ere baduzue, ikasleek unitatearen diseinuaz, metodologiaz, edukiez, ebaluazioaz, harremanez, lan-giroaz eta beste hainbat konturi buruz zer iritziduten jakiteko. **(10 min.)**

## SAIOAREN GARAPENA

45 min 

### » DINAMIKA

#### Gizartearen eta ingurumenaren errespetuan oinarrituriko ekonomia bidezkoago baterako proposamenak



- **EDUKIA:** Talde bakoitzak prestaturiko plan-proposamenen berri ematea (enpresarena, entitate finantzarioarena eta/edo kontsumitzaile-elkartearena).
- **MATERIALAK:** Arbela eta klarionak edo errotuladoreak.
- **INPLEMENTAZIO-DENBORA:** 45 minutu.

Hasteko, esplikatu saioan egingo duzuen lanaren nondik norakoak, baina kontuan hartu gaurkoa Enpresa eta giza eskubideak unitate didaktikoaren bukarako saioa duzuela, eta, beraz, taldeek orain arte egindakoa bateratzea eta osatzea dela helburua. **(5 min.)**



Talde bakoitzak bere ekimen edo proiektua aurkezteko 5 minutuko tartea izango du, eta horretan, egokiak iruditzen zaizkien zenbana-hi baliabide erabili ahal izango dituzte. **(30 min.)**

Proiektuak ordena honetan aurkeztuko dira: a) enpresa; b) entitate finantzarioa; c) kontsumitzaile-elkartea.

Hauxe da aurkezpenen eskema:

- Erreferentziako kontzeptuaren aurkezpena (Erantzukizun Sozial Korporatiboa; Banku Etikoa; Kontsumo Arduratsua).
- Entitatearen aurkezpena.
- Bai gizartearekin eta bai ingurumenarekin arduraz jokatzeko entitateak hartu beharreko neurrien planaren aurkezpena.



Talde bakoitzaren proiektua beste bi taldeek ebaluatuko dute, zeinek bere taldean jokatu behar duen rolaren ikuspuntutik begiratuta. Hori dela eta, aurkezpen bakoitzaren ostean, 5 minutu emango dira zalantzak argitzeko, aurkezturiko proiektuak ekonomia arduratsuen irizpideekin bat datozen eztabaidatzeko. eta nahi beste ñabardura egiteko.

**Dinamika amaitzeko, egin Unitate Didaktikoan ikasitako enburpena, eta azaldu, labur-labur, ikasleek aurkezturiko erreferentziako kontzeptuak. (10 min.)**



#### ■ PARTEKATZEKO IDEIAK

Hiru saio hauetan, hiru kontzeptu giltzarri landu ditugu: Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Banku Etikoa eta Kontsumo Arduratsua. Ondoren, eztabaidarako baliagarriak izan litezkeen zenbait ideia esplikatu ditugu, ikasleek kontzeptu bakoitzari buruz esandakoak osatzeko aproposak izan daitezkeelakoan:

#### **ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOA/ENPRESARIALA**

- **Enpresaren erabaki guztiek izan behar dute oinarri Erantzukizun Sozial Korporatiboa**, baina ez marketing-kanpaina modura, printzipio etiko modura baizik, enpresak aintzat hartu behar baitu beti, zernahi kudeatzen ari dela ere, bere jarduerak zuzenean edo zeharka gizartearen eta ingurumenean zer-nolako inpaktuak eragiten dituen.
- Enpresek beren jarduerak arautzen dituzten nazio barruko nahiz **nazioarteko legeak zorrozki errespetatu** behar dituzte, eta **Erantzukizun Sozial Korporatiboa ezin da betebeharr hori ordezkatzeko erabili, baina bai osatzeko.**
- **Enpresei, administrazio publikoei eta kontsumitzaileei dagokie Erantzukizun Sozial Korporatiboa oinarri hartzeko ardura.** Enpresarena da ardura nagusia, baina administrazio publikoek, ahalmen legegilea duten aldetik, enpresa-jardueretan giza eskubideak errespetatzen direla bermatzeko moduko arauak egin eta betearazi

behar dituzte, eta kontsumitzaileok ere badugu horretan zer esana (ikus Kontsumo Arduratsua).

■ **Enpresek gardentasunez jokatu behar dute beti.** batetik, tartean diren eragile edo interes-taldeekin komunikatzeko zenbanahi mekanismo jarri behar dituzte martxan, eta haien kezka eta zalantza argitu; eta, bestetik, beren jardueri buruzko informazio zintzoa eman behar dute.

■ **Enpresek gizon eta emakumeen arteko berdintasuna bermatu behar dute.** Alde horretatik, Erantzukizun Sozial Korporatiboa feminista da nabarmen-nabarmen.

■ **Erantzukizun Sozial Korporatiboa balio-kate osoan aplikatu behar da.** eta enpresak non diharduen, **bertako gizartearen burujabetza eta kultura errespetatu behar ditu.**

■ **Ekonomia solidarioko entitateak Erantzukizun Sozial Korporatiboaren eredu dira.** Izan ere, Erantzukizun Sozial Korporatiboa ez da enpresek beren jardueretan txertatzen duten erantzukizun-estandarren multzoa, baizik eta enpresa ulertzeko beste modu bat, guztiz berritzaile eta urratzailea, ahalik eta diru gehiena irabazteko helburu bakarrari uko egitean ardatzen dena eta enpresa lurralde jakin baten garapenaren gurpilean sartzen duena.

## **BANKU ETIKOA**

■ **Finantzen globalizazioak** ataka gaiztoan jarri ditu mundu zabaleko hamaikatxo herrialde, eta milioika gizon-emakumeren bizimodua hondatu du. Horretan sektore finantzarioaren eta bankuen **inpaktua itzela** denez, nabarmena da haiek erantzukizun sozial handiagoa dutela beste sektore batzuek eta herritar xumeek baino.

■ Sektore finantzarioak, **erantzukizun sozial itzel** hori nolabait hezuramitzeko, kreditu aktiboari eta inbertsioei buruzko bere politikak aldatu behar lituzke, eta bere produktuak irizpide etikoetan eta **ardura sozialen arabera inbertsioetan** oinarriturik diseinatu eta eskaini, inpaktu sozial eta ekologiko handiko proiektuak finantzatzeari lehentasuna emanaz.

■ Diruaren balio soziala berreskuratzearen aldekoa denez gure apustua, **finantza etikoak** babesten ditugu. Finantza-mota horiek gardentasunean oinarritzen dira, eta inpaktu sozial eta ekologiko positiboa duten jarduera ekonomikoak baizik ez ditu finantzatzeko, errentagarritasun ekonomiko ahaztu gabe betiere.

■ Mugarik gabeko Ekonomilariok FIARE Banku Etikoa babesten dugu, balio erantsiko faktore ugari eskaintzen dituelako: egitura deszentralizatua du eta irabazi-asmorik gabeko elkarte da, bere garapena lurralde bakoitzeko talde sozialetan oinarritzen du, eta kreditu-kooperatiba gisa eratuta dago. Gainera, oso gertu sentitzen ditugu FIAREren antzera proiektu sozialetan inbertitzen duten beste kooperatiba batzuk ere, hala nola Koop57.

■ Finantza etikoek, gainera, **kreditua eskuratzeko aukera ematen die eskusio-arriskuan dauden pertsonei.**

■ Norbanako gisa, pertsona guztiok alda dezakegu zerbait, denok ekar dezakegu gure aletxo ekonomia bidezkoago baterako bidean aurrera egiteko: bizi garen gizartearekin engaiaturik gauden aurrezle eta/edo inbertsore garen aldetik ere, denok dugu zer edo zer egiteko ahala, eta hain zuzen, horretarako aukera ematen dute finantza etikoek.

## KONTSUMO ARDURATSUA

■ **Kontsumitzen ditugun produktuen ikuspegi ahalik zabalena izatea da kontua**, produktu eta zerbitzuak kontsumitu bitarterainoko bide luzea aintzat hartzea: lehengaiak nola lortu diren, produkzio-prozesuak nolakoak diren, langileen eskubideak errespetatzen diren ala ez, zer enpresa-eredu eta zer eredu komertzial lehenesten diren, marken eta publizitatearen gardentasuna, erabilitako garraiobideak nolakoak diren, produktuak nola paketatatu diren, produktuei zer erabilera eman zaien, zenbat hondakin sortu diren....

■ **Prezio baxuek** ondorio kaltegarri asko ezkututzen dituzte maiz: kostu sozial eta ekologikoen murrizketak nagusiki, eta horrek ekarri ohi dituen urraketa guztiak ere bai: lan-eskubideak eta ingurumen-eskubideak galtzea edo murriztea, alegia.

■ **Kontsumitzaile eta herritar modura dugun botere itzelaz jabetu behar dugu:** batetik, zenbait produktu eta zerbitzu ez kontsumitzea erabaki dezakegu presio-neurri gisa, eta erantzukizun sozial, lan-arloko eskubide eta ingurumena babesteko neurri guztiak berma daitezela exijitu; bestetik, berriz, herritar gisa elkartzeko ahala ere badugunez, informazio-kanpainak eta salaketa-kanpaina publikoak antola ditzakegu, eta erakunde publikoen martxan eragin, horrek aldaketa sozialak ekar ditzan. Horretantxe ari dira kontsumo arduratsuaren aldeko zenbait sare eta plataforma: Zentzuz Kontsumitu eta Saretuz, besteak beste.

■ Enpresa askoren gardentasunik eza gorabehera, enpresa-jarduerak duten inpaktuaren gaineko **informazio-iturri alternatibo** ugari ditugu eskura: GKEEen txostenak (OMAL, Amnesty International, Setem, Intermon Oxfam, Alboan...), informazio-kanpainak (Detox, Arropa Garbia, Armarik gabeko Bankuak, Gatazkarik gabeko Teknologia, BDS Israelen okupazioaren kontra...) eta are sakelako telefonorako aplikazioak ere, hala nola produktuak konparatzeko <https://aboutit.eu> aplikazio etikoa.

## » UNITATE DIDAKTIKOAREN AMAIERA

### Enpresa eta giza eskubideak



■ **EDUKIA:** Saioa amaitzeko, tailerrean egin eta ikasitakoak laburtuko dira. Ikasleei ebaluazio-galdetegi bana emango zaie.

■ **MATERIALAK:** Ebaluazioari buruzko eranskinaren fotokopiak.

■ **INPLEMENTAZIO-DENORA :** 5-10 min.

# BIBLIOGRAFIA

## Erantzukizun Sozial Korporatiboa/Enpresariala

- Mugarik gabeko Ekonomilariak (2015) ***Economía Social, Responsabilidad Social Empresarial, trabajo autónomo y emprendimiento: transformando los retos de la crisis en oportunidades.*** Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak diruz lagunduta ( <http://ecosfron.org/wp-content/uploads/Informe-Econom%C3%ADa-Social-RSE.pdf> )
- Mugarik gabeko Ekonomilariak (2014). ***Empresas, Derechos Humanos y competitividad. ¿Una relación imposible?*** Mugarik gabeko Ekonomilariak eta Erantzukizun Sozial Korporatiboari eta Jasangarritasunari buruzko Telefónica-UNED Katedra ( [https://ecosfron.org/wp-content/uploads/VTerminada\\_Emp\\_Comp\\_DDHH\\_verFinal\\_11junio.pdf](https://ecosfron.org/wp-content/uploads/VTerminada_Emp_Comp_DDHH_verFinal_11junio.pdf) )
- Mugarik gabeko Ekonomilariak (2012) Actividad Económica y Derechos Humanos: ***¿Una cuestión de imagen? Estudio sobre los riesgos de vulneración de los Derechos Humanos en relación con la actividad económica*** ( [http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Estudio\\_Actividad-Economica-y-Derechos-Humanos\\_EsF2011.pdf](http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Estudio_Actividad-Economica-y-Derechos-Humanos_EsF2011.pdf) )
- Mugarik gabeko Ekonomilariak (2011) ***La inversión socialmente responsable como palanca de la Responsabilidad Social en la Pequeña y Mediana empresa.*** ( [http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/ISR\\_Y\\_PYME.DEFINITIVO.pdf](http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/ISR_Y_PYME.DEFINITIVO.pdf) )

## Banku Etikoa

- Mugarik gabeko Ekonomilariak (2006) ***Las finanzas éticas en Europa, SETEM,*** Madrid. ( [http://finanzaseticas.org/pdf/01\\_FinanzasEuropa.pdf](http://finanzaseticas.org/pdf/01_FinanzasEuropa.pdf) )
- Marcos de Castro Sanz [Coord.] (2013) ***Banca Ética ¿Es posible?*** Mugarik gabeko Ekonomilariak, 8. txosten ( <http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/DOSSIERES-EsF-8-BANCA-%C3%89TICA.pdf> )

- Ochoa Berganza, Jesús (2013). **“Finanzas para una economía humana sostenible: Hacia la Banca Ética”**. Revista de Dirección y Administración de Empresas, 20. ( [http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Finanzas-%C3%A9ticas\\_hacia-la-banca-%C3%A9tica\\_JOchoa.pdf](http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Finanzas-%C3%A9ticas_hacia-la-banca-%C3%A9tica_JOchoa.pdf) )
- SETEM. (2006). **“Finanzas Éticas y Comercio Justo: Fomentar el desarrollo”**. SETEM, 5. ( [http://finanzaseticas.org/pdf/03\\_FinanzasEticasyComercioJusto.pdf](http://finanzaseticas.org/pdf/03_FinanzasEticasyComercioJusto.pdf) )

## Consumo responsable

- Colectivo Consuma (2006) **Responsabilidad Consuma responsabilidad. Guía de consumo responsable y solidario en la Comunidad de Madrid**, Madrid, Traficante de Sueños. ( [http://www.educacionenvalores.org/IMG/pdf/guia\\_consumo\\_completa\\_web.pdf](http://www.educacionenvalores.org/IMG/pdf/guia_consumo_completa_web.pdf) )
- Economistas sin Fronteras (2011) **¿Cambiar el mundo desde el consumo?**, Dossier n°. 2 ( <http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/Dossier-2-Trim-2-2011.pdf> )
- Economistas sin Fronteras (2012) **Crisis, indignación ciudadana y movimientos sociales**, Dossier n° 6 ( <http://www.ecosfron.org/wp-content/uploads/DOSSIERES-EsF-n%E2%88%82%C3%9F-6.pdf> )
- Lodeiro, Toni. **Consumir menos, vivir mejor. Ideas prácticas para un consumo más consciente**. Txalaparta, 2008 ( <http://consumoetico.webs.uvigo.es/textos/menos.pdf> )



# ERANSKINAK

## 01 GIDA

01



**EKONOMIA  
ARDURATSU,  
ZUZEN ETA  
SOLIDARIO  
BATERANZKO  
URRATSAK**

**ENPRESA  
ETA  
GIZA  
ESKUBIDEAK**

# 1 ERANSKINA

## Enpresak, giza eskubideen ikuspuntutik begiratuta, gizartean eta ingurumenean eragiten duen inpaktua



Hauek dira talde bakoitzaren zereginak: (15 min.)

Gizartean eta ingurumenean inpaktua dutenetatik giza eskubideak urratzen dituztela iruditzen zaizkien faktoreak ahots gora irakurriko ditu taldekide batek, eta besteek hark esana idatziko dute.



Gero, denon artean bateratuko duzue talde bakoitzak idatzitakoa, eta pertsoneri ala ingurumenari eragiten dieten, inpaktuak horren arabera sailkatuko dituzue.



Produkzio-zikloa aztertu, eta inpaktuak fasez fase kokatuko dituzue. Inpaktu bakoitza zer faseri dagokion jakiteko, eskatu ikasleei galdera hauei erantzuteko:

**Erauzketa:** Zer inpaktu eragiten ditu produktuak egiteko erabiltzen diren lehengaiak lortzeko moduak?

**Produkzioa:** Zer inpaktu eragin ditzake kontsumorako objektuen fabrikazio-prozesuak?

**Banaketa:** Produktua fabrikatik dendetara eramateak zer ondorio ekartzen dizkie pertsoneri eta ingurumenari?

**Kontsumoa:** Nola kontsumitu ohi dugu? Zein ote da horren zergatia? Zein dira gure kontsumo-ohituren ondorioak?

**Hondakinak jalkitzea:** Zer gertatzen da gure hondakinekin? Nola eragiten diete gure hondakinek gizarte- eta natura-inguruneari?

**Irabaziak berriz inbertitzea:** Zertan inbertitzen dituzte enpresek beren irabaziak?



Horren ondoren, talde bakoitzak bere aurkezpenaren formatua prestatuko du (marrazkiak eta gako-hitzak, albistegiak, irratsaioak, iragarkiak...)



Azkenik, talde bakoitzak bere bozeramaileak aukeratuko du, ikaskideei egindakoaren berri emateko.



## ALBISTEAK

### ■ Amnesty Internationalek haurren esplotazioaren bidez lortutako kobaltoa erabili izana leporatu die Apple, Sony, Samsung eta Volkswagen konpainiei.

[https://www.berria.eus/paperekoa/1777/010/001/2016-01-20/adingabeen\\_esplotazioaren\\_sostengatzaile\\_jo\\_dituzte\\_hainbat\\_teknologia\\_enpresa.htm](https://www.berria.eus/paperekoa/1777/010/001/2016-01-20/adingabeen_esplotazioaren_sostengatzaile_jo_dituzte_hainbat_teknologia_enpresa.htm)

Milioika lagunengozagarri dira teknologia berriak, baina ezkutua da haien eskuetara iritsi aurreko bidea. Kobaltoa, esaterako, ezinbesteko materiala da smartphone-eta bateriak egiteko. Ezinbestekoa bezain arriskutsua. Izan ere, haren arrastoari segitu dio Al Amnesty International gobernuz kanpoko erakundeak, eta bertatik bertara frogatu du adingabeen meategietatik lortzen dutela material hori multinazionalak. Salatu du ez dutela egiaztatu ere egiten euren produktuetan erabilitako kobaltoa haurrek zuzenean hartutakoa den edo ez. Afrewatch taldearekin taxututako txostenean, izen handiko teknologia enpresak jo ditu Alk umeen esplotazioaren “sostengatzailetzat”.

Baina zehazki nork saltzen du kobaltoa? Bi enpresa jarri ditu jo puntuan Amnesty Internationalek: batetik, Txinako Huayou Cobalt; eta, bestetik, haren Kongoko adarra, Congo Dongfang Mining. Biek mineralak prozesatzea dute eginkizun nagusi, horren ostean baterien osagaiak ekoizten dituzten Txina eta Hego Koreako hiru enpresari saltzeko. Horiexek, aldi berean, bateriak egiten dituzten etxeetara bideratu ohi dituzte gailuak, azkenean Apple, Microsoft, Samsung, Sony, HP, Daimler eta Volkswagen tanketarako enpresa entzutetsuak hornitze aldera.

### Meategietan heriotza

Amnesty Internationalen dokumentuak Kongoko Errepublika Demokratikoko meategietan daude oinarrituta. Munduko kobalto guztiaren erdia ekoizten da han, sakelako telefonoetako eta ibilgailu elektrikoetako bateriak egiteko. Herrialde horren hegoaldeko 87 meatarirengana –haurrak dira horietako hamazazpi– eta hemeretzi merkatarirengana jo dute ikerlariak kobaltoaren jatorriaz solastatzeko, eta egoera “lazgarriarekin” egin dute topo.

Besteak beste, 7 urteko umeak ikusi dituzte “bidegabeki” lanean. Alk azaldu du dolar eskas baten truk dozenaka ordu igarotzen dituztela lanean. Abusu fisiko eta psikologikoak “etengabeak” dira, eta albo ondorioak, berriz, oso bistakoak, Alren hitzetan: “Haur ugari biriketako arazoak dituzte, eta muskuluetan mina izatea ohikoa bihurtu da”. Hautsez beteta ematen dituzte egunak, 24 kilora arteko zakuak garraiatzen.

Gurasoek behartuta edo umezurtz geldituta jotzen dute adingabe gehienek meategietara, eta gogoz kontra jartzen dituzte kobaltoarekin lanean, dirurik ez dutelako. Testigantza latz baten berri eman du Alk: 14 urteko umezurtz batek aitortu du 24 ordutik gora pasatu behar izaten dituela eguzkia ikusi barik. “Esklabutzaren parekoa da ia egoera”, Alren arabera. Zehazki, ez dakite zenbat pertsona hiltzen diren kobaltoaren eraginez, baina uste dute asko eta asko direla, kobaltoak “helduen eta haurren” bizitzak arriskuan jartzen dituelakoan. “Arroken azpian lurperatuta uzten dituzte gorpuak”. Zenbait autori ere jarraipenak egin dizkiote, baina ez dute fruiturik lortu, oso lausoa baita kobaltoaren arrastoa.



■ **Zergatik irabazten dugu emakumeek gizonak baino gutxiago? Gaur egun, Euskadiko gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala % 26koa da batez beste. Ordainsari berdina jasotzeko, emakumeek gizonak baino 79 egun gehiago egin behar dugu lan.**

<http://www.deia.com/2016/03/08/economia/las-mujeres-la-brecha-salarial-por-sectores>

Gizonak baino soldata apalagoa jasotzen dugula ukaezina da, baina zenbat diru gutxiago irabazten dugu, eta zergatik? Sara de la Rica EHUKo Ekonomia katedradunaren arabera, galdera horri erantzutea zaila omen da, auziak ñabardura gris asko egitea eskatzen baitu, eta zenbakien hoztasuna ez omen da hori esplikatzen gauza. "Arrazoi ugari daude emakumeek gizonak baino soldata baxuagoa irabazteko. Lehenik eta behin, batez beste ordu gutxiago ematen ditugu lanean (emakumeen ia % 20k hautatzen dute lanaldi laburra; hori egiten duten gizonak, aldiz, % 5 baino ez dira). Bigarren, batez beste soldata baxuagoa duten lanbideetan aritzen gara (osasun-zerbitzuetan, hezkuntzan...). Hirugarren, enpresetan lan egiten duten emakumeen antzintasuna txikiagoa da gizonena baino, eta Espainian soldatak antzintasunaren arabera igotzen direnez, emakumeen soldata-igoerak apalagoak izaten dira. Laugarren, gizon eta emakumeek enpresa eta lanbide berberetan egiten duten lana konparatzen hasita ere, gizonen soldata-osagarriak handiagoak dira emakumeenak baino, eta berdina da arrazoia zein den: txanda gehiagotan lan egitea, antzintasuna edota bonuen ondorio diren sariak. Faktore horiek guztiak direla tarteko, gaur egun % 26raino igo da gizon eta emakumeen arteko soldata-arrakala", esplikatzen du Sara de la Rica Emakumeen Egoera Ekonomikoari buruzko Batzordeko presidentea.

**Engainurik ez.** Estatistikek ez dute engainatzen, baina nahasi bai. UGT sindikatuaren Lan berdina, soldata berdina txostenean ageri den Soldata Egiturari buruzko Urteko Estatistikak adierazten duenez, gizon eta emakumeen arteko berdintasunak guk nahi baino urrunago egoten jarraitzen du.

Bidegabekoa da? Bai, noski. Baina bidegabekoa bezain dudagabekoa da, nahiz eta zenbaitek itsu egoten jarraitzen duten, gaur egun horrelakorik ez dela gertatzen sinetsita. Errealitatea, ordea, oso bestelakoa da: bi sexuen arteko soldata-arrakala ez da kasik batera murriztu azken urteetan.

Gaur egungo emakumeek hezkuntza-maila handia dute, baina horrek ez die onurarik ekartzen lanean. "Emakumeek enplegurik zaugarrienak dituzte", erantsi du Carolina Pérez de Toledo Emakume Enpresarien Elkarte (AED) presidentea.

Pérez de Toledoren iritziz, malgutasun premiak eragiten di emakumeei beren lanaldia laburtzea edo langile autonomo gisara lan egitea, oraindik ere haiek baitira haur eta agureak zaintzen dituztenak. "Emakumeek etxeko zaintza-lanak egiten jarraitzen dugu, eta horixe da gakoa: etxean beste lan horietan jarduteko laburtzen ditugu lanaldiak, etxeko lanen % 80 guk egiten jarraitzen baitugu gaur egun. Horrek bitartekotasun-egoeran jartzen gaitu, eta jakina: lanaldia zenbat eta laburragoa izan, orduan eta soldata eskasagoa jasotzen da", argudiatu du Pérez de Toledok, horrek guztiak legez arautu gabeko lanetan jardun beharra ere badakarrela azpimarratzeaz batera. AED elkartearen presidentea bat dator Sara de la Ricarekin lanbide-segregazioak beste arrakala bat sortzen duela nabarmentzean: gizon eta emakumeek oso sektore, lanbide eta enpresa-mota desberdinetan egiten omen dute lan, eta hori oso goiz hasten omen da: unibertsitate-ikasketak aukeratzean. "Emakume gutxiak jarduten du zientzietan, injinerutzan eta antzeko ikasketetan: gehienek giza zientziak hautatzen dituzte, halakoek ospe txarragoa duten arren eta sektore horretan ordainsariak apalagoak badira ere", gehitu du Pérez de Toledok.



## ■ 'Black Friday' ekimenaren 'B aurpegia': kontsumo konpultsiboa eta enplegu-galera

<http://www.noticiasdenavarra.com/2017/11/23/economia/la-cara-b-del-black-friday-consumo-compulsivo-y-destruccion-de-empleo>

Ekologistak Martxan, Greenpeace, Lurraren Lagunak eta UGT elkarteek salatu dutenez, ostiralean egitekoak diren 'Black Friday' ekimenak 'B aurpegi' bat omen dauka: kontsumo konpultsiboak enpleguan eta ingurumenean eragin ditzakeen efektuak, alegia.

Greenpeaceren arabera, 'Black Friday' ekimenaren arriskueta bat "modu konpultsiboan erosteko" joerarekin dago lotuta; izan ere, elkarte ekologistak dioenez, joera horrek gazteen % 30i eragiten die, eta erosketak online egin ahal izateak erraztu egiten du hori. "Kontsumo-eritmo horrek bioaniztasuna suntsitzea eta klima-aldaketa larriagotzea dakar, zeren eta gaur egun orain dela 30 urte baino askoz natura-baliabide gehiago erauzten eta erabiltzen baitira", ohartarazi dute Greenpeaceko arduradunek.

Elkarte ekologistak azpimarratu duenez, 2000tik 2014ra bitartean, arropa-produkzioa bikoiztu egin omen zen, eta pertsona bakoitzak, batez beste, duela 15 urte baino

% 60 arropa gehiago erosi omen zuen. Teknologiaren sektorean ere horixe da joera: 2007. urteaz geroztik, 7.000 milioitik gora smartphone merkaturatu dira. "Asko konpontzen zailak direnez, jendeak sakelako berriak erosten ditu, halakoen hondakinek dakartzaten arriskueta gehiegi pentsatu gabe". Greenpeaceren aurreikuspenen arabera, aurten 50 milioi tona hondakin elektronikoko sortuko ditugu.

[...]

Gainera, bai Greenpeace eta bai Ekologistak Martxan elkarteek nabarmendu dutenez, "enpresek promes egiten dute kontsumitzeak zorion betea dakarrela. "Zorion-eredu hori, ordea, faltsua eta jasangaitza da", Celia Ojeda Greenpeaceko kontsumo-arduradunak dioenez.

Hori dela eta, Ekologistak Martxan elkarteak kanpaina bat abiatu du 'Zoriontasuna kontsumitzen al dugu?' lelopean, eta dei egin du 'Black Friday' ekimenari aurre egitera eta ostiral honetarako hainbat herrialdetan antolatu den Erosketarik Gabeko Eguneko "kontsumitzaileen greban" parte hartzera.

[...]

### **Enplegu-galera: Ameriketako Estatu Batuak, gertatzen ari denaren eredu**

Bestalde, UGT sindikatuak "produktu elektronikoen erraldoiek" saltoki txikiei eragiten dizkieten kalteez ohartarazi du, eta gogorarazi du halakoak neurri gabe ugaritzeak enplegua galtzea ere ekar dezakeela. AEBetan gertatzen ari dena aipatu dute adibide modura: herrialde horretan, sindikatuko ordezkariak adierazi dutenez, Internet bidezko salmenta-plataformak ugaritu izanak "dozenaka enpresa" itxi beharra ekarri omen du, eta "banaketa-sistemaren oinarriak dardarazi ditu".

"2010. urteaz geroztik, salerosketaren sektoreko 233 enpresa txikizkari handienek hondoa jo dute: Bloomberg konpainiaren arabera, AEBetako eremu komertzialean

-305 milioi metro koadro, gutxi gorabehera- diharduten enpresen % 10ek atear itxiko dituzte salmenta elektronikoen kopurua haztearen ondorioz; Credit Suisse enpresaren kalkuluen arabera, gainera, 2017an 8.600 denda txiki itxiko dituzte. 1956tik 2005era bitartean, 1.500 merkataritza-gune eraiki ziren AEBetan; 2017an,



1.100 baizik ez dira geratzen, eta hamar urte barru, kopurua erdira jaitsiko da”, adierazi dute sindikatuko ordezkariak.

Sindikatuak nabarmendu duenez, salerosketak plataforma digitalen bidez egiteak enpleguari ere eragingo dio: “Iana aldi baterakoa izango da, behin-behinekoa, gehienetan gaizki ordaindua; lan-txandak eta ordutegiak oso estuak izango dira, eta langileek berme eta eskubide guztiak galduko dituzte”.

Sindikatuak prentsa-ohar batean adierazi duenez, “ikuspegi ekonomiko eta fiskaletik begiratuta, enpresa multinazional gutxi batzuk negozio osoaren jabe bihurtzea da arriskua, eta horrek dakarren guztia ere bai: enpresek beren irabaziak atzerrira eramatea eta zergarik ez ordaintzea, batez ere. Horrek gure ekonomiari eta lehiakortasunari erasango lieke, eta, beraz, baita gure Ongizate Estatuari ere”.

Merkataritza elektronikoak Espainian eragindako inpaktua ez da AEBetan eragindakoaren parekoa inondik ere, baina, sindikatuko ordezkarien esanetan, “joera geldiezina” omen da, datuek argi erakusten dutenez: Espainian, Internet bidez erosten duten herritarren kopurua % 34tik % 50era igaro da 2010etik 2017ra bitartean.

“Hain zuzen ere, hazkunde-tarte horretantxe errepika daiteke Espainian AEBetan gertatutakoa: txikizkako merkataritza desagertu eta erosketak Internet bidez egitearen ondorioz, milaka denda txikik ateak itxi ditzakete, eta enplegu ugari suntsitzea eragin dezake horrek, eta gure ekonomia txirotzea eta desparekotasunak haztea ere bai”. Horregatik, sindikatuak, merkaturaren erregulatzeko neurriak eskatu, eta enplegu-sistemaren birmoldaketa teknologikoari ekin beharraz ohartarazi du, merkataritzaren digitalizazioak ekarriko dituen ondorioei aurre egiteko.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## ■ Espainiako 14 bankuk, BBVA buru dela, armagintzaren sektorea finantzatzen dute, SETEMen arabera

<https://www.vivalebio.com/es/consumo-rebelde/233-bbva-el-banco-espanol-que-mas-invierte-en-armamento-controvertido.html>

Armagintzaren sektoreko enpresa handienetako 19 finantzatzea leporatu diete Espainiako 14 bankuri, tartean BBVA, Santander eta Bankiari. Mundu osoko milaka herritar hil izanaren erantzule dira enpresa horiek, eta debekatutako arma-mota ugari fabrikatzen dituzte: arma kimiko eta biologikoak, barreiatze-bonbak, pertsonen aurkako minak, arma nuklearrak, uranio txirotua dutenak...

SETEM elkarteak eman ditu datuak, *Garbitu bankuak* kanpainaren barruan argitaratu duen "Negocios Sucios. Bancos españoles que financian armas controvertidas" txostenean (txostena irakurri nahi izanez gero, jo hona <http://www.bancalimpia.com/pdf/negocios-sucios.pdf>).

Txostenean datu triste ugari ematen dira: besteak beste, BBVA dela armagintzaren sektoreari diru gehien eman dion bankua, 2006. urteaz geroztik 1.000 milioi euro baino gehiago eman baitizkie barreiatze-bonbak, arma nuklearrak eta uranio txirotua duten armak fabrikatzen dituzten enpresei.

SETEMen arabera, BBVAren giza eskubideen eta ingurumenaren alorreko barne-politikekin kontrastatzen du egoera horrek, bai eta entitate finantzarioak Erantzukizun Sozial Korporatiboaren alorrean sinatutako akordioekin ere, hala nola Ekuadorreko Printzipioekin, NBEko ESK Estandarren Nazioarteko Itunarekin, Nazio Batuen Ingurumen Programaren barruko Sektore Finantzarioaren Ekimenarekin eta Global Reporting Initiative delakoarekin.

Horiek guztiak gorabehera, J.M. Delàs Bakearen Ikerketa Zentroak, Zor Globalaren Behatokiak eta SETEMek berak BBVA *armarik gabe* kanpainaren bidez aspaldi salatu zuten bezala, BBVA Taldeak diru asko inbertitzen du armagintzaren sektoreko enpresetan: BAE Systems, Boeing, EADS, Finmeccanica, General Dynamics, Honeywell, ITT Corporation, Jacobs Engineering, L-3 Communications, Larsen & Toubro, Northrop Grumman, McDermott International, Rolls Royce eta Thales konpainietan, bai eta Irakeko gerran erabili ziren barreiatze-bonbak fabrikatu zituen Tectro enpresan ere.

Gadafik Espainiako diruarekin erositako lehergailuak erabili zituen, SETEMen arabera.

Baina BBVA ez da hainbeste gizon-emakume hil dituen negozio horretan parte hartzen duen banku bakarra. Armagintza finantzatzen duten entitateen rankingean, bigarren postua Santander bankuari dagokio (haren inbertsio-funtsek 13 konpainiatan daukate akzioak, zazpi konpainiari maileguak eman dizkie eta beste hiruri bonuak jaulkitzen lagundu die), eta haren ondoren, tropelean, beste hamar banku datoz: Bankia, Banco Madrid, Banca March, Banco Popular, Banco Sabadell, Bankinter, CatalunyaCaixa, Finanduro, Ibercaja eta MAPFRE.

Txostenaren arabera, Bankia da nagusi zerrenda horretan, haren inbertsio-funtsek zortzi konpainiatan baitaukate akzioak, eta Banco Sabadell hurrena, zazpi konpainiatan baitauka akzioak.

Txostena prentsaurrean aurkeztu zen egun berean, SETEMek berretsi zuen 2007an Espainian fabrikaturiko barreiatze-bonbak erabili zituela Gadafik, eta horren atzean entitate hauek zeudela: Cajalón, Caja España, Caja Mediterráneo, Bankinter, Ibercaja, Banco Popular, Banco Sabadell eta La Caixa.



■ **“Arropa merkea erosiz gero, langileak ez du ezer irabazten, horrekin negozioa egiten duten konpainiek baizik”**

[https://www.eldiario.es/norte/euskadi/trabajadoras-siquiera-cuesta-prenda-fabricado\\_0\\_760125243.html](https://www.eldiario.es/norte/euskadi/trabajadoras-siquiera-cuesta-prenda-fabricado_0_760125243.html)

Lan-eskubideak defendatzea du helburu Langileen Solidaritaterako Bangladesheko Zentroak Bangladesh Center for Worker Solidarity (BCWS). Elkarteko zuzendari exekutiboa, Kalpona Akter, Euskal Herrian da egunotan, Bangladesheko hiriburuko Rana Plaza eraikina eraitsi zenetik ia bost urte igaro direnean, bere herrialdeko ehungintzaren sektoreko langileen lan-baldintzei buruz hitz egiteko.

Mendebaldeko denda askotan saltzen diren jantziak egiten zituzten zortzi solairuko eraikinean. Duela ia bost urte, 2013ko apirilaren 25an, Rana Plaza eraikina kolapsatu eta behea jota geratu zen, eta, horren ondorioz, 1.100 langile hil eta 2.000 baino gehiago zuritu ziren. Langile guztiak emakumezkoak ziren, eta lan-kondizioak, berriz, izugarriak: soldata miserableak eta lanaldi luzeak. Ezbeharrean inplikaturik zeuden bertako enprekin harremana zutela eta bertan egindako arropa saltzen zutela aitortu zuten Primark, El Corte Inglés, Benetton eta antzeko beste konpainia handi batzuek.

Kalpona Akter lan-eskubideen aldeko ekintzailea da, eta ospe handia du nazioartean [...]

SETEM elkarteak ekarri du Euskal Herrira, Arropa Garbia kanpainaren kariatara, bere herrialdeko langileen lan-kondizioez hitz egin dezan.

Akter hamabi urte zituela hasi zen lanean joskintzaren industrian, hilean sei dolarren truke. Urte batzuk lanean eman ostean, kaleratu eta zerranda beltzean sartu zuten, fabrika sindikatu bat sortzen ahalegintzeagatik. Adina, soldata eta antzeko faktoreak aparte utzita, zergatik ahalegindu zineten antolatzen leku hartako langileak?

[...]

Legearen berri izan nuenean, zortzi orduko lanaldietarako eskubidea genuela jakin nuen, inork ez zuela gu jipoitzeko eskubiderik, fabrikak leku segurua izan behar zuela, larrialdi-irteerak izan behar zituela, sua piztuko balitz ere, badaezpada. Labur esanda, garrantzi handiko gauza bat ikasi nuen: sindikatu bat sortu behar genuela. Lankideak elkartu egin gitezkeen, eta nagusia salatu. Legea argia zen, baina inork ez zuen betetzen. Argi zegoen, beraz: elkartzen ez baginen, gure lan-kondizioek bere hartan jarraituko zuten, eta gure lan-kondizioak negargarriak ziren: izan litezkeen txarrenak.

[...]

Langileok ezin genion Rana Plazan lan egiteari uko egin. Bagenekien eraikinak pitzadurak zituela, eta beldur ginen eroriko ote zen. Nagusiengana joan ginen, eta esan genien fabrika itxi behar luketela, injineruek haren egoera azter zezaten; hura leku segurua ez zela, alegia. Mehatxatu egin gintuzten, esan ziguten ez zigutela ordainduko, eta gogor jo gintuzten, fabrikara sar gintezen. Ezin genuen ezer egin, sindikaturik ez genuelako.

Tazreen Fashions-en, kea usaindu zutenean, nagusiek makinetara bultzatu zituzten langileak. Horixe gertatu zen. Baina ez nuke esango ezbeharra izan zenik. Lehendik ere bagenekien zer gertatuko zen. Ez, ez zen istripua izan. Gero gertatu zena izan zen munduko egunkari guztiek eman zutela han gertatutakoaren berri, eta horrek gobernu eta enpresa guztiak ernarazi zituen. Kontsumitzaileen presioa ere ez zen nolana hikoia izan, eta nire herrialdeko gobernuak gauzak aldatu behar izan zituen.

Munduko enpresa askok eta Bangladesheko sindikatuek segurtasunari buruzko agiri bat sinatu zuten, eta horrek sektorea itzulipurdikatu zuen. Ez zuten konpainia guztiek sinatu, baina bai askok. Konpainia batzuk ( Rana Plazaren antzeko kondizioak zituztenak, esate baterako) itxi egin zituzten, eta beste batzuetan, berriz, aldaketak egin behar izan ziren: suteetarako-eta prestaturik ez zeuden eraikinetan, adibidez, larrialdi-irteerak instalatu zituzten.

Segurtasun-baldintzak hobeak dira gaur egun, baina atzera egingo ez badugu, epaileek lanean jarraitu beharko dute aurrerantzean. Fabrika horiek auzitara eraman behar dira. Erantzukizunak eskatu behar zaizkie. Hori segurtasunari dagokionez, baina sindikatuei buruz hitz eginez gero ere, tira... gauzek bere hartan jarraitzen dute. Lehen langileek ez zuten elkartzeko askatasunik, eta orain bai; gobernu presionatu izanak gauzak hobetu ditu, baina fabrika gutxitan daude sindikatuak: berrogeita hamar ere ez dira izango. Horretan gauzak ez dira askorik aldatu. Batez besteko soldatek ere berdintsu jarraitzen dute: 68 dolar hilean. Ez da aski. Igoera bat tramitatzen ari dira, baina ez dakigu zenbatekoa. Guk hilean 250 dolarreko gutxieneko soldata eskatzen dugu.

[...]

Mendebaldean, batzuetan garrantzitsuagoa da merke erostea arropa nondik datorren jakitea baino. Ba ote daki jendeak jantzirik daramatzaten arropak fabrikatu dituzten langileak zer kondiziotan aritzen diren lanean?

[...]

Denok jabetu behar dugu egoeraz. Berdin da arropa non eginda dagoen, Vietnamen, Indian, Myanmarren edo Txinan, kondizioak sekula ez dira onak izaten. Ez da European edo AEBetan bezala. Herrialde horietan guztietan, produkzio masiboak egiten dira. Jantzirik daramazuna nork egin duen, horixe pentsatu behar zenuke. Betikoek irabazten dute. Ezer erosi aurretik, galdetu zeure buruari: behar al dut hainbeste arropa? Ez al zenuke hobe diru piska bat gehiago gastatu eta jantzi hobe erostea?

Nazioarteko GKE, sindikatu eta kontsumitzaile-elkarte ugari babesten duten Arropa Garbia kanpainaren helburua hauxe da: jantzigintzaren sektoreko mundu osoko langileen lan-kondizioak hobetzea.

[...]

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## ■ Irabaziak atzerrira eraman zituzten zortzi enpresa harrapatu ditu Bizkaiak .

<http://www.elmundo.es/pais-vasco/2017/12/13/5a312d122268e3ee6608b4587.html>

bederatzi guztira; Konkurtso-Ikerketako Talde Operatiboa, berriz, hirutik seira igaroko da. "Iruzur fiskal txikiena izatea dugu helburu, eta hori betetzeko asmoz indartuko ditugu taldeok", zehaztu zuen.

Talde multinazionalen arteko operazioak ikertzen dituen NFU aurten jarri dute ofizialki martxan, baina, berez, 2015etik ari da ikertzen. Sozietate zerga ahalik eta txikiena ordaintzeko zenbait enpresa handik 2010etik 2013ra deklaraturako doitze negatiboen harira abiatu zuten ikerketa. Bizkaian egoitza duten 123 enpresei eskatu zieten informazioa, aurreko urteetan izandako galerak argudiatuta 4.000 milioi euro txikitu zituztelako aitortutako irabaziak. Azkenean, zortzi enpresa ikertzea erabaki zuen NFUk, eta aurkitu zuen irabaziak zerga txikiagoko beste herrialde batzuetako adarretara desbideratu zituztela –Suitzara, bereziki–. Enpresa horiek 125,9 milioi ordaindu behar izan dituzte.

Kopuru hori aurki igo daiteke, egitura bera baliatu duten beste hiru talde multinazional ikertzen ari baita oraintxe NFU. Etorkizunean ikerketak abiatzeko informazioa eskatu diete 2012tik 2015era beren sozietate zergako ekarpena jaitsi zuten beste 37 enpresari.

Halaber, lau multinazionalen parte diren Bizkaiko bost adar ere ikertzen ari dira, jakiteko beren taldeko enpresen arteko salerosketak puztu ote zituzten, irabaziak ezkutatzeko.

Lan ildo horretan sakontzearen garrantzia azpimarratu zuen Iruarrizagak, "bereziki, egungo ekonomia globalizatuan". Azaldu zuenez, Bizkaiko hainbat enpresa txiki eta ertainek ere geroz eta operazio gehiago egiten dituzte nazioartean. "Horrek exijitzen die Bizkaitik kanpo egoitzak ezartzea, eta gure lana da operazio horiek tentuz aztertzea".

### Elkarlana epaitegiekin

Indartuko den beste ikerketa taldea Konkurtso-Ikerketako Talde Operatiboa izango da. Talde hori ekainetik ari da ikertzen zerga iruzurrarengatik zigortutako eta beren burua kaudimengabe deklaraturako pertsonen ondarea. Ikuskatzaileek zorra kitatzeko zigortuek izan litzaketen ezkutuko ondasunak bilatzea dute helburu, eta, beraz, zehaztea zigortuak benetan ote diren kaudimengabe. Zigortuaz gain, haren familia ingurua eta esparru profesionala ere aztertzen dute

Dagoeneko, ikerketa taldeak hiru txosten itxi ditu, hamaika ditu martxan, eta zortzi abiatzeko prest. Ogasuneko zuzendari Aitor Soloetak azaldu duenez, Bilboko Exekuzio Auzitegiaren eta ogasunaren "interes komunak" sortu du taldea. "Kitatzeko zailak dira zor horiek, zigortuak kaudimengabe deklaritzen direlako, eta deklarazio hori baliatzen dutelako kartzelatzea saihesteko".

## 2 ERANSKINA

### Ekonomia zuzenago baterako Ekintza Plana<sup>1</sup>



Talde bakoitzak Enpresa Plan bat, Inbertsio Plan bat edo Kontsumo Arduratsuko Plan bat egin beharko du (25 min.):

Talde bakoitzak, bere erreferentziatzko kontzeptua ikertu eta ulertu, eta bere enpresak ingurumenaren babesean eta giza eskubideen errespetuan oinarrituriko ekonomia arduratsuago baten alde zer egin dezakeen hausnartu beharko du.



Ikasle bakoitzari gogoeta egiteko 5 minutuko tartea emango zaio, eta gero, egindakoa bateratze aldera, talde bakoitzaren ekimenaren gizarte- eta ingurumen-ardurak zerrendatuko dira denen artean.



Talde bakoitzak bere entitatearen plan espezifikoak egingo du:

- Erreferentziatzko kontzeptuaren definizioa (Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Banku Etikoa edo Kontsumo Arduratsua).
- Enpresaren, entitate finantzarioaren edo kontsumitzaile-elkartearen definizioa (izena, zer produktu/zerbitzu eskaintzen dituen...).
- Ekonomia zuzenago baterako bidean, zer egin dezake enpresak / entitate finantzarioak / kontsumitzaile-elkarteak?



Talde bakoitzak entitatearen aurkezpen publikoa prestatu beharko du (aurkezpena hurrengo saioan egingo da), betiere kontuan harturik aurkezpenaren helburua zera dela: entitateak erantzukizun-irizpide guztiak betetzen dituela argi azaltzea.

Aukeratu bozeramaile bana, ikaskideei egindakoaren berri emateko.

<sup>1</sup>Ikasleei bi orrialde hauek emango zaizkie, jarraibideak eskura izan ditzaten, eta horrekin batera, erreferentziatzko zer kontzeptu landu behar duten, harekin loturik ondoren aurkezten diren materialak ere bai.

# 1 TALDEA: Erantzukizun Sozial Korporatiboa

## ■ ESK, enpresa-irabaziez gaindi

Gizarte- eta lan-auziekin, ingurumenaren babesarekin eta giza eskubideen errespetuarekin loturiko kezkak erakunde baten kudeaketan eta jardueretan aintzat hartzeari eta txertatzean datza Erantzukizun Sozial Korporatiboa, eta halakoei aurre egiteko eta erakundearekin harremana duten interes-taldeak ere bide horretan inplikatzeke moduko politikak, estrategiak eta prozedurak martxan jartzea du oinarri.

Langileek enpresan luzaroan gelditzea ekarriko dielako, enpresaren ospea hobetuko duelako, salmentak haziko direlako... Baliteke irabazi horiek eta gehiago ekarriko dizkiola uste duelako hartzea oinarri ESK enpresa batek, baina ikuskeran nabarmen da partziala. Enpresaren antolaketa orokorra aintzat hartzen ez bada, ESK hankamotz geratzen da.

Izan ere, Erantzukizun Sozial Korporatiboa ez da enpresek beren jardueretan txertatzen duten erantzukizun-estandarren multzoa, baizik eta enpresa ulertzeko beste modu bat, guztiz berritzaile eta urratzailea, ahalik eta diru gehiena irabazteko helburu bakarrari uko egitean ardaizten dena eta enpresa lurralde jakin baten garapenaren gurpilean sartzen duena.

## ■ ESK aplikatzen hasi aurretiko betebeharra: nork bere zergak ordaintzea

Enpresa handi batzuek, zergarik ez ordaintzeko, lege-estategiak edo legean ilun samar dauden aspektuak erabiltzen dituzte. Demagun enpresa multinazional bat Espainian duela egoitza nagusia: produktu jakin baten balio erantsiaren zati nagusia modu jakin batean diseinatu izanaren ondorio dela esan, eta ustez produktua diseinatu den herrialdean (paradisu fiskal bat) enpresak duen sukurtsalak faktura bat jaulkitzen dio Espainiako egoitzari aholkularitzagatik, laguntza teknikoagatik, ikerketagatik edo royaltyengatik; faktura urtearen joanean irabazitako kopuruaren parekoa denez eta, ustez behintzat, irabazirik izan ez duenez, enpresak ihes egiten dio Espainian zergak ordaintzeko betebeharrari.

## ■ Legez ezarritako neurrien osagarria da ESK

Enpresek beren jarduerak arautzen dituzten nazio barruko nahiz nazioarteko legeak zorrozki errespetatu behar dituzte, eta Erantzukizun Sozial Korporatiboa ezin da betebeharrari hori ordezkatzeko erabili, baina bai osatzeko.

## ■ ESK nork bere borondatez aplikatu nahi izatea ez da aski

Erantzukizun Sozial Korporatiboan oinarrituriko estategiek arauen beharra dute: enpresek ESK aplikatuko badute, estategiarik eraginkorrenak bultzatuko badira, erantzukizun soziala aintzat hartzeko moduko pizgarriak emango bazaizkie enpresei, eta kontrol-sistema independente baten bitartez, alor horretan gizarteak eskatzen duenari behar bezala erantzungo bazaio, behar-beharrezkoa da lege eta arau egokiak sortzea. Horregatik, gure ustez, kontu honetan **administrazio publikoek modu aktiboan esku hartu behar lukete.**



### ■ **Tartean dauden eragile guztien inpaktua hartu behar da aintzat**

Enpresaren jardueretan tartean zer eragile dauden (langileak, kontsumitzaileak, inbertsore eta akziodunak, hornitzaileak, gizarte zibila, administrazio publikoak...), haiek guztiek eragiten dituzten inpaktu sozial eta ekologikoak hartu behar dira aintzat. Alde horretatik, tartean dauden eragile edo interes-taldeekin etengabe **harremanak izateko mekanismoak** ezarri behar dituzte enpresek, haien kezka partikularrak identifikatzeko eta arazoei aurre egiteko modua izango badute.

### ■ **Non errotuak dauden, bertako kultura, legeak eta garapen-ereduak errespetatu behar dituzte arduraz jokatzeko duten enpresek**

Enpresak jarduerak non dituen, leku horietan guztietan aplikatzekoa da Erantzukizun Sozial Korporatiboa, eta komunitate osoari eragiten dio. Horrek esan nahi du ESK **balio-kate osoari** aplikatu behar zaiola, eta enpresak bizi den gizartearen burujabetza, legeak, garapen-politikak eta **kultura** errespetatu behar dituela.

■ **Gizartearekin garden jokatu beharra da ESKren oinarrietako bat**, eta enpresak eragiten dituen inpaktu sozial eta ekologikoen ahalik eta irudi fidel eta zorrotzena eman behar du.

■ **Denetariko erakundeek aplika dezakete ESK:** enpresek, irabazi-asmorik gabeko elkarte eta fundazioek, administrazio publikoek, hezkuntza-erakundeek...

### ■ **Enpresek bakarrik ez: denok dugu erantzukizun soziala**

Herritar guztiok ditugu erantzukizun sozialak: denok dugu gizarte zuzenago eta jasangarriago bat eraikitzeko bidean zer edo zer egiteko ardura.

## ESK: Hausnarketarako elementuak

Enpresak bere erantzukizun sozial eta ekologikoak betetzen dituela esateko aintzat hartu behar diren elementuak:

■ **Produkzioa:** Nola produzitu da eskaintzen dugun produktu edo zerbitzua?

■ **Hornitzaileak:** Zer irizpideren arabera erabakitzen da zein izango den aurreko puntuan identifikaturiko produktuak hornituko dizkigun enpresa? Prezioa al da irizpide bakarra? Aintzat hartu al dira erantzukizun sozialean oinarrituriko irizpideak, hala nola hornigai (papera, kartutxoak...) birziklagarriak edo bidezko merkataritzako produktuak erostea?

■ **Bezeroak:** Kontuan hartzen al da bezeroek zer iritzi duten produktuei buruz? Eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzuak eman daitezkeen onenak al dira? Zer-nolako mezua transmititzen die bezeroei enpresaren komunikazio-, publizitate- eta marketing-ereduak?

■ **Gardentasuna.** Zure ustez, bezeroak ba al du zure enpresaren jardueri buruzko nahikoa informazio? Ba al dago enpresaren kontu orokorren berri jakiteko bide publikorik?



## 2 TALDEA: Banku Etikoa

Merkatu-ekonomian, sistema finantzarioari oinarri-oinarrizko funtzio bat dagokio: soberakindun ekonomia-unitateak eta ekonomia-unitate defizitarioak harremanetan jartzea merkatu finantzarioen bidez. Horri esker, aurrezleen funtsak likidezirik ez duten inbertsoreen esku jartzen dira, haien inbertsioa produktiboa izan dadin eta horrek garapen ekonomiko eta soziala ekar dezan.

Gaur egungo globalizazio finantzarioak sekulako boterea eman die entitate finantzario eta enpresa multinazionaleri, eta horregatik, botere hori Giza Garapen Jasangarriaren zerbitzura jartzeko, beharrezkoa da entitate finantzarioetan ere Erantzukizun Sozial Korporatiboa aplikatzea. Horretarako, banku-bitartekaritzaren negozioek eta merkatu finantzarioetako inbertsio-negozioek hiru osagai orekatu eta bateratu behar dituzte: ekonomikoki bideragarriak izan behar dute, gizarteari onura egin behar diote eta ingurumenarekin errespetuz jokatu behar dute.

Diruaren balio soziala berreskuratzeko, sektore finantzarioak bere kreditu- eta inbertsio-politika aktiboetan aplikatu behar du dagokion Erantzukizun Sozial itzel hori, baina baita bere produktuak diseinatzeko politika pasiboetan ere.

Gaur egungo kapital-mugimendu gehienak espekulatiboak dira, baina ez luke hala izan behar: inbertsio guztiek produktiboak izan behar dute, eta errentagarritasun finantzarioa ez, gizartearentzat onuragarriak izatea bilatu behar lukete.

Produktu finantzarioen artean, Ardura Sozialen arabera Inbertsioak (ASI) bultzatu beharko lirake, halakoak printzipio sozial eta ekologikoetan ardaztuta baitaude, eta ez errentagarritasun ekonomiko hutsean. Burtsa Indize Sozialki Arduratsuak ere badaude, eta horrek erraztu egiten du produktu arduratsuen kudeaketa, haietan parte hartzen duten enpresei Erantzukizun Sozial Korporatiboaren arabera irizpideak aplikatzen baitizkie.

Diruak bere balio soziala berreskura dezan nahi dugunez, beharrezkoa iruditzen zaigu Banku Etikoa babestea. Banku Etikoak Erantzukizun Sozial Korporatiboaren printzipioak errespetatzen ditu, eta inpaktu sozial positiboa duten jarduerak soilik finantzatzen ditu, errentagarritasun ekonomikoa ahaztu gabe betiere. Inbertsio-proiektu guztiek Batzorde Etiko baten eta Batzorde Ekonomiko baten galbahetik igaro behar izaten dute, eta hirugarren sektoreko, ekonomia sozialaren alorreko eta pobrezia eta gizarte-esklusioaren eremuko proiektuak lehenesten dira.

Gurean Banku Etikoa bultzatze aldera, Mugarik gabeko Ekonomilariok FIARE Banku Etikoa babesten dugu, balio erantsiko faktore ugari eskaintzen dituelako: egitura deszentralizatua du eta irabazi-asmorik gabeko elkarte da, bere garapena lurralde bakoitzeko talde sozialetan oinarritzen du, eta kreditu-kooperatiba gisa eraturata dago.

Finantzak eta ekonomia zuzenagoak izateko bide horretan, bere erantzukizun sozialen gaineko ardura hartzen duen inbertsoreek berebiziko garrantzia dute. Alde horretatik, gure esku dago non inbertitu erabakitzea: edo Giza Garapen Jasangarriaren arabera irizpideak aplikatzen dituzten enpresetan, edo ahalik eta dirurik gehiena irabazi beste asmorik ez duten eta gizarteari inolako onurarik egiten ez dieten enpresetan.

## Banku Etikoa: Hausnarketarako elementuak

- **Inbertsioa.** Zein dira entitate finantzarioaren inbertsio-irizpideak? Finantzatzen al da armen produkzio eta salmenta? Eta tabakoarena? Eta haurren eskulana? Eta animaliekin esperimentuak egitea? Eta oihan tropikaletatik ekarritako zuraren erabilera?
- **Gardentasuna:** Ematen al duzue dirua paradisu fiskaletara eramateko erraztasunik? Entitatearen kontuak publikoak al dira? Ematen al diezue bezeroei zuen kontuen berri?
- **Kudeaketa:** Zuen kudeaketa piramide-formakoa edo hierarkikoa da, ala parte-hartzea aintzat hartzen duena? Zein da zuzendaritza-taldeko kideen eta langileen arteko soldata-tartea?
- **Bezeroak:** Kontuan hartzen al da bezeroek zer iritzi duten produktuei buruz? Kontsultatzen al zaie zer-nolako inbertsioak egin beharko liriatekeen? Eskaintzen ditugun produktu eta zerbitzuak eman daitezkeen onenak al dira? Zer-nolako mezua transmititzen die bezeroei enpresaren komunikazio-, publizitate- eta marketing-ereduak?
- **Gizartea:** Zure ustez, gizartea aski inplikaturik al dago zuen entitate finantzarioan? Eskaintzen al duzue epe luzean komunitatearentzat onuragarriak diren zerbitzu eta kalitate handiko produkturik? Zer ekarpen egiten dio zuen entitateak bizi den komunitateari?
- **Langileak:** Zer kontratu-mota dute zure enpresako langileek? Zer gizarte-prestazio dituzte? Kontuan hartzen al dira langileen lan-kondizioak (lanaldia, soldata, osasun- eta segurtasun-baldintzak, sindikatze eskubidea, oporrak...)? Ba al duzue langileei lana eta familia kontziliatzeko aukera ematen dien neurririk? Zer kargu duten gorabehera, kontziliazio-neurri berberak aplikatzen al zaizkie langile guztiei?
- **Generoa:** Berdin jokutzen al duzue emakumezko eta gizonezko langileekin? Entitatean lanpostu berberak lortzeko aukera al dute? Sari bera jasotzen al dute lan bera egiten dutenek? Enpresan ba al duzue emakumezko eta gizonezko langileen arteko bazterkeriazko tratuari aurre egitekorik? Maileguak lortzeko aukera bera al dute emakumezko eta gizonezkoek? Zuen publizitate-kanpainetan kontuan hartzen al duzue genero-ikuspegia, ala rol tradizionalak erreproduzitzen dituzue?
- **Giza eskubideak:** Ba al duzue arrazagatiko, gizarte- nahiz kultura-jatorriagatiko, sexuagatiko, hizkuntzagatiko, erlijioagatiko eta/edo ohiturengatiko bazterkeriaren kontrako protokolorik? Zer egiten du zuen enpresak giza eskubideen alde? Maileguak emateko edo inbertsio bat onartzeko orduan aintzat hartzen al duzue enpresek giza eskubideak errespetatzen dituzten ala ez?
- **Ingurumena:** Zertan laguntzen dio zuen entitateak ingurumena babesteari (paperaren erabilera, energiarena, urarena...)? Maileguak emateko edo inbertsio bat onartzeko orduan aintzat hartzen al duzue enpresek ingurumenean zer-nolako inpaktua eragiten duten?

### 3 TALDEA: Kontsumo Arduratsua

Produktu eta zerbitzuak, haien kalitatean eta prezioan oinarriturik bakarrik ez, halakoek ingurumenean eta gizartean zer-nolako inpaktuan duten eta halakoak produzitzen dituzten enpresen jokabidea kontuan harturik aukeratzean datza. Hau da, kontsumitzen ditugun produktuen ikuspegi ahalik zabalena izatea da kontua, produktu eta zerbitzuak kontsumitu bitartean bide luzea aintzat hartzea: lehengaiak nola lortu diren, produkzio-prozesuak nolakoak diren, langileen eskubideak errespetatzen diren ala ez, zer enpresa-eredu eta zer eredu komertzial lehenesten diren, marken eta publizitatearen gardentasuna, erabilitako garraiobideak nolakoak diren, produktuak nola paketatuta diren, produktuei zer erabilera eman zaien, zenbat hondakin sortu diren...

Gure kontsumoa arduratsua dela esaten dugunean, zera ari gara adierazten: kontsumitzaileok zer esan franko dugula kontsumoaren kate horretan, geuk erabakitzen dugula zer aukeratu ondasun eta zerbitzuen merkatuak eskura jartzen dizkigun produktu ugarien artean, gure esku dagoela justizia soziala, etika eta solidaritatea errespetatuz produzitutako produktuak erosi ala ez aukeratzea.

Herritarrok presio-neurri gisa erabili behar dugu erosteko dugun ahala. Kontu hauetan aitzindari izan zen elkarte batek dioen bezala, herritarrok "erosketen bidez erabakitzen ditugu gure balioak zein diren". Kontsumitzaileok gure esku dugu praktika onenak saritzea eta txarrenak baztertzea, betiere eskubide sozialekin, lan-kondizioekin eta ingurumenaren errespetuarekin loturiko zenbait berme bete daitezela exijituz.

Laburbilduz, modu arduratsu, kritiko eta kontzientean kontsumitzeak hauxe eskatzen du:

- 1\_ Ingurumena errespetatu;
- 2\_ MBB: Murriztu (kontsumoa nahiz hondakinak), Berrerabili eta Birziklatu;
- 3\_ Lan-kondizioei erreparatu;
- 4\_ Bizitza eta zaintzak lehenetsi.

Horretan, gainera, aintzat hartu behar dugu pertsona GUZTIOK dugula mundu zuzenago eta solidarioago baterako bidean gure aletxoak eskaintzeko ahala.

.....

.....

.....

.....

.....

.....

## Kontsumo Arduratsua: Hausnarketarako elementuak

- **Kontsumoa.** Zergatik erosten dugu? Behar duguna erosten al dugu? Nola murriztu dezakegu gure kontsumoa? Nola susta daiteke tokian tokiko salerosketa? Zer elikadura-mota komeni zaigu? Zer irizpideren arabera aukeratu behar genituzke erosten ditugun produktuak? Informatzen al gara produktuen jatorriaz, ala publizitateak eta prezioak gidatzen gaituzte? Ba al dugu produktuen inpaktu sozial eta ekologikoaren ardurarik? Zein da kontsumitzaileok ekonomian dugun lekua? Zein da gurea ahalaren arrazoia?
- **Hondakinak.** Nola murriztu ditzakegu produzitzen ditugun zabor eta hondakinak? Zer egiten dugu produzitzen ditugun hondakinekin?
- **Berrerabilera.** Nola luza dezakegu produktuen bizitza baliagarria?
- **Garraioa.** Nola lekualdatzen gara gure herri-hirietan? Zer egin dezakegu gure lekualdaketek eragiten duten kutsadura murrizteko?
- **Baliabideak.** Nola aurreztu ditzakegu ura, energia...?
- **Generoa.** Zer egin dezakegu gure eguneroko praktiken bidez genero-berdintasuna bultzatzeko?
- **Giza eskubideak.** Zer egin dezakegu, kontsumitzaile garen aldetik, giza eskubideak babesteko? Kontuan hartzen al dugu kontsumitzen ditugun produktuek giza eskubideetan eragiten duten inpaktua?
- **Salaketa publikoa.** Zer egin ohi duzu produktu batek inpaktu sozial edo ekologiko gaiztoa duela dakizunean? Ezagutzen al duzu inpaktu negatibo horien kontra borrokatzen den talde edo kolektiborik? Zer egin dezakegu enpresetan eragin eta beren praktika txarrak zuzendu ditzaten?

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

# EBALUAZIOARI BURUZKO ERANSKINA

Hona hemen saioak ebaluatzeko proposatzen dizkizuegun bi bideak:

## A. Tailerra ebaluatzeko galdetegia<sup>1</sup>

■ Zer da tailerrean gehien gustatu zaizuna?

.....  
.....

■ Ba al duzu tailerreko edukiak hobetzeko proposamenik?

.....  
.....

■ Ba al duzu tailerreko jarduerak hobetzeko proposamenik?

.....  
.....

■ Nolakoak izan dira ikasleen arteko harremanak? Eta ikasle eta irakasleen artekoak?

.....  
.....

■ Nola sentitu zara tailerrak iraun duen denboran?

.....  
.....

■ Zer ikasi duzu? Jarraituko al duzu tailerrean landutako gaiari buruz informazioa bilatzen eta ikertzen?

.....  
.....

<sup>1</sup>Galdetegia unitate didaktiko bakoitzeko bukaerako saioan eman behar da

## B. Unitate didaktikoaren ebaluazio parte-hartzailea



■ **EDUKIA:** Ikasleek edukiei, metodologiari, ebaluazioari, ikaskideen eta irakasleen arteko harremanari, lan-giroari eta beste hainbat alderdiri buruz dituzten iritziak jasotzea,

■ **MATERIALAK:** Koloretako post-itak; arbela eta klarionak edo errotuladoreak.

■ **INPLEMENTAZIO-DENBORA:** 10 min.

1\_ Eman koloretako zenbait post-it ikasle bakoitzari. Post-it bakoitzean ideia bat idatzi behar dute, gustatu zaien zerbait edo hobetu litezkeela iruditzen zaizkien alderdiak, kategoria hauen arabera: edukiak, metodologia, ebaluazioa, harremanak eta beste batzuk.

2\_ Bukatu ahala, ikasleek arbelean nahiz paperografoan marrazturik egongo den taulan dagokion lekuan itsatsi beharko dituzte beren post-itak, honela.

	Edukiak	Metodologia	Ebaluazioa	Harremanak	Beste batzuk
Ongi					
Hobetu beharra					

3\_ Ikasle guztiek beren post-itak jarri ondoren, hasi denok solasean egindakoari buruz, eta hizketaldiak irauten duen tartean, ikasleek eman dezatela irakurri eta esandakoei buruzko beren iritzia.







# MATERIAL OSAGARRIAK

A\_ Ikus-entzunezko baliabideak

B\_ Jarduera osagarriak

01



**EKONOMIA  
ARDURATSU,  
ZUZEN ETA  
SOLIDARIO  
BATERANZKO  
URRATSAK**

**ENPRESA  
ETA  
GIZA  
ESKUBIDEAK**

# IKUS - ENTZUNEZKO BALIABIDEAK

Eredu ekonomikoak giza eskubideetan eragiten duen inpaktua

■ **Econopoly 4.0** | La Editora eta EsF | 2015 | 7:20 min.

Film labur honetan, eguneroko gure biziraupen-jolasa islatzen duen bideo-jokoa simulatzen da. Ikusleak bi estrategia hauetako bat aukeratu beharko du: edo ekonomia zuzen eta bidezko bat, bideo-jokoa parte hartzen duten 7.000 milioi jokalariei mesede egingo diena, edo desorekak baino eragiten ez dituen ekonomia neoliberala.

<https://vimeo.com/97707382>

■ **Loreen uhartea** | Jorge Furtado | 1989 | 12:33 min.

Hasieran tomate bati buruzko istorioa baino ez zena (landatzen dutenetik zabortegira eramaten duten unera bitartean tomateak egiten duen bide luzearena), umore beltzaren bitartez, giza kondizioari buruzko hausnarketa krudel baina sakona bilakatzen da pixkanaka-pixkanaka, edo hobeto eta zehatzago esateko, giza miseriari buruzkoa. Filmak hainbat sari jaso ditu: Berlinaleko Zilarrezko Hartza eta Brasilgo urteko film laburrik onenaren saria, besteak beste; gainera, 1995ean, zinemaren historiako film labur onenen zerrendan sartu zuen Frantziako kritikarien elkarteak. Jeinu baten lana, inondik ere.

<https://www.youtube.com/watch?v=9fEMHB9kksM>

■ **Gauzen historia** | Storyofstuffproject | 2009 | 21:24 min.

Haiek erazteko prozesua hasten denetik saltokietara eraman eta erosten ditugun arte, inguruan ditugun objektu eta produktu guztiek eragiten diete giza komunitateei, eta, hala eta guztiz ere, horrekin loturiko gehiena ezkutuan geratzen da. Datuz josiriko bideo entretenigarri bezain dinamiko honek 20 minutuko iraupena du, eta gure produkzio-ereduen alderdi ezkutua deskribatzen du. Bideoa oso aproposa da bai ikasteko, bai entretenitzeko eta baita gauzei buruz dugun ikuskera errotua aldatzeko. Bideoan argi geratzen da ingurumen- eta gizarte-arazo asko elkarrekin estu-estu lotuta daudela, eta mundu jasangarriago eta bidezkoago baten alde elkartzera dei egiten digu.

<https://www.youtube.com/watch?v=ykfp1WvVqAY>

# Erantzukizun Sozial Korporatiboa

## ■ Erantzukizun Soziala, enpresen estrategiaren muinean

TEDx - Marcelo Tedesco | 2013 | 16:19 min.

Hitzaldi honetan, bi enpresa-eredu deskribatzen dira: batetik, erantzukizun soziala beren bekatuak zuzitzeko bitarteko gisa darabiltenena; eta, bestetik, erantzukizun soziala beren negozio-estrategiaren muintzat jotzen dutenena.

<https://www.youtube.com/watch?v=aLJmPFI7dD0>

## ■ “Ez dago salgai” | UNED | 2013 | 1:06:05

Erantzukizun Sozial Korporatiboaren Behatokiak eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalak (UNED) elkarrekin produktutako dokumentala.

[https://www.youtube.com/watch?v=u\\_FUW6aFmdM](https://www.youtube.com/watch?v=u_FUW6aFmdM)

# Banku Etikoa

## ■ Mugarik gabeko Ekonomilariak eta Fiare Low | EsF | 2015 | 5:30 min.

Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomilariak sortu zutenetako batek, Jesús Ochoak, gure elkarteaz, finantza arduratsuez, banku etikoaz eta Fiarez hitz egiten du bideo honetan.

<https://www.youtube.com/watch?v=0SS8iGSp5q4>

## ■ SPOT-SETEM Finantza Etikoak | SETEM-Madrid | 2009 | 1:34 min.

Rey Juan Carlos Unibertsitateak (URJC) antolaturiko Solidar&dar Publizitate Sozialeko III. Jaialdiko epaimahaiaren hirugarren saria irabazi zuen iragarki honek. Antonio Calderón, Daniel Escudero, Miguel Moreno, Sandra López eta Natalia Calvo ikasleak dira egileak.

<https://www.youtube.com/watch?v=dCARIYdym0c>

## ■ Garbitu bankuak | SETEM-Madrid | 2012 | 2:26 min.

Iragarki honen oinarrian txosten bat dago: SETEM eta Justicia i Pau elkarteek argitaraturiko “Inversiones que son la bomba: negocios de la banca con las empresas españolas de armamento” realizado por SETEM y Justicia i Pau.

<https://www.youtube.com/watch?v=Yw8Mmu6B9xA>

■ **Zure diruarekin** | SETEM Hego Haizea | 2013 | 1:07:10

Dokumental honetan Espainian gaur egun dauden praktika finantzario alternatiboen berri ematen da.

<https://vimeo.com/59010358>

## Kontsumo Arduratsua

■ **Zapata erosi berrien astindua!**

Arropa Garbia kanpaina | 2015 | 1:23 min.

Emakume baten zapatak dira film labur honen hari nagusia: haien produkzioak eragiten dituen inpaktu sozial eta ekologikoak, zehatz esatera.

<https://www.youtube.com/watch?v=VcmfqtVTVXI&list=PLFx2ow4MybA66wsdIR6lw4pAtnWlht70t&index=22>

■ **Zer da bidezko merkataritza?** | SETEMPV | 2013 | 7:05 min.

Bideo soil eta didaktiko honetan, bidezko merkataritzaren oinarriak esplikatzeko dira, eta apropos-aproposa da haren alde egitearen garrantziaz eta kontsumitzeko beste modu batzuen aldean dituen abantailez jabetzeko.

<https://www.youtube.com/watch?v=DjbZE9yyy6c>

■ **Aldaketaren historia** | Storyofstuffproject | 2015 | 6:28 min.

Gure ekonomia-eredua bidezkoago eta jasangarriago nola bihurtu erakusten da bideoan, eta aurrera egiteko hamaika orientazio ematen ditu.

<https://www.youtube.com/watch?v=Lut7cJMbsNk&t=7s>

■ **Bizi eta gozatu!** | Saretuz Sarea | 2016 | 0:43 min.

Kontsumo Arduratsuaren gakoaren sintesi laburra.

<https://www.youtube.com/watch?v=vxUNiMkRnkU>

■ **Saretuz: Donostiako Kontsumo Arduratsu, Kontziente**

Saretuz Sarea | 2016 | 0:43 min.

Donostiako Kontsumo Arduratsu, Kontziente eta Eraldatzailearen Saretuz Sareari buruzkoa da bideo hau.

[https://www.youtube.com/watch?v=nAuxZq\\_X4Ng](https://www.youtube.com/watch?v=nAuxZq_X4Ng)

# JARDUERA OSAGARRIAK

Jarduera osagarri hauek zenbait gai sakonago aztertzea dute helburu, eta oso egokiak dira ikasgelan ikasitakoa kaleko esperientziekin osatzeko. Hona hemen zenbait adibide

## JARDUERA OSAGARRIAK LANTZEKO IDEIAK

### Erantzukizun Sozial korporatiboa

Jarduerak	Baliabideak
<p><b>Bideo-foruma</b></p> <p>Helburua bi enpresa-eredu deskribatzea da: batetik, erantzukizun soziala beren bekatuak zurrizko bitarteko gisa darabiltenena; eta, bestetik, erantzukizun soziala beren negozio-estrategiaren muintzat jotzen dutenena.</p>	<p><b>Erantzukizun Soziala, enpresen strategiaren muinean</b></p> <p>TEDx - Marcelo Tedesco   2013   16:19 min.</p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=aLJmPFI7dD0">https://www.youtube.com/watch?v=aLJmPFI7dD0</a></p>
<p><b>Salaketazko film laburrak</b></p> <p>Arropa Garbia kanpainari buruzko film laburretatik abiatuta, ikasleek, taldetan jarri, beren gidoiak idatzi ahal izango dituzte, eta ehungintzarekin, elikagaiekin, energiarekin eta beste zenbait sektoreekin loturiko enpresek eragindako bidegabekeria sozial eta/edo ekologikoak salatu. Gero, gidioa grabatu eta muntatu egin dezakezue, inguruan dituzuen teknologiak erabiliz (ordenagailuak, sakelako telefonoak...).</p>	<p><b>'38' film laburra</b></p> <p>SETEM Catalunya   2011   3:45 min.</p> <p><a href="https://www.youtube.com/watch?v=_Z749ReErEM">https://www.youtube.com/watch?v=_Z749ReErEM</a></p> <p><b>Zapata erosi berrien astindua!</b></p> <p>Arropa Garbia kanpaina   2015   1:23 min.</p> <p><a href="#">Bideoa ikustea</a></p>

## Kontsumo Arduratsua

## Jarduerak

**Elkartekin bertatik bertara**

Kontsumo arduratsua bultzatzen duten elkarten lana bertatik bertara ezagutzeko, ikasgela kalera eraman dezakezue, eta zuen herri-hirian kontsumo arduratsua praktikatzen duen elkarte bat edo beste bisitatu.

**Bideo-foruma**

Kontsumismoa eta kontsumo arduratsua zertan diren desberdinak sakonago jakitea da helburua, bai eta planeta hobetzearren zer egin dezakegun adibideen bidez azaltzea ere.

## Baliabideak

Hona hemen Euskadin kontsumo arduratsua bultzatzen duten eragile batzuen zerrenda, gehien interesatzen zaizun ekimena ikertzeko erreferentzia modura erabil dezazun:

- Euskadiko Ekonomia Alternatibo eta Solidarioaren Sarea (bazkideen zerrenda): <http://www.economiasolidaria.org/entidades>
- Kontsumo arduratsu baterako alternatibak: <http://www.mecambio.net>
- Merkataritza soziala: [http://mercadosocial.konsumoresponsable.coop/buscador-de-entidades?field\\_territorio\\_tid=All](http://mercadosocial.konsumoresponsable.coop/buscador-de-entidades?field_territorio_tid=All)
- Saretuz, Donostiako kontsumo arduratsu eta eraldatzailearen sarea: <https://saretuz.eus/nor-gara/>
- Zentzuz Konsumitu: <http://consumoresponsable.info/>
- Kidenda, bidezko merkataritzako denda: <https://kidenda.org/eu-quiennes>

**Eboluzioaren ultimatuma**

SETEMPV ■ 2009 ■ 10:24 min.  
<https://www.youtube.com/watch?v=c5SEHz3Y6q8>

**Kontsumo arduratsua (7. maila)**

Santiago Segura ■ 2015 ■ 9:43 min.  
<https://www.youtube.com/watch?v=uSpUKFvw3ew>

**Bi tomate, bi helmuga**

VSFtv ■ 2012 ■ 8:56 min.  
[Bideoa ikustea](#)







<https://ecosfron.org/euskadi>



Economistas sin Fronteras- EsF Euskadi



@EconomiaJusta